LG



# GM360-aren

## Erabiltzailearen eskuliburua

**Baliteke operadore guztiek ez eskaintzea eskuliburu honetan azaltzen diren aukera guztiak.**

Bluetooth QD ID B016467

**Informazio orokorra**

<LGren bezeroentzako informazio-zentroa>

**902-500-234**

* Ziurtatu zenbakia zuzena dela, deitu aurretik

**Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua**

**CE 0168**

P/N : MMBB0383415

## Zorionak LGren GM360 telefono mugikorra erosteagatik. Modelo honek diseinu berritzailea eta konpaktua du, eta bateragarria da komunikazio mugikor digitaleko teknologiarik aurreratuenarekin.

**Nola bota gailu elektriko eta elektroniko zaharrak**

1. Ezabatutako zaborrontziaren irudia duten produktuek 2002/96/EE Direktiba bete behar dute.
2. Gailu elektriko edo elektronikoak ez dira bota behar udalak eskaintzen dituen zabor-zerbitzu arrunten bidez, eta gobernuak edo tokiko erakundeek produktu horieta rako prestatutako guneetara eraman behar dira.
3. Gailu erabilezinak behar bezala jaso eta tratatzen badira, ingurumenari eta osasun publikoari sor diezazkieketen arriskuak saihets daitezke.
4. Gailu zaharrak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan udalarekin, zaborrak biltzeko zerbitzuarekin edo produktua erositako saltokiarekin.



# Edukiak

**Telefonoa ezagutzea ........ 6**

**Telefono irekiaren ikuspegia ........ 7**

**SIM txartela eta bateria jartzea ........ 8**

**Telefonoa kargatzea ........ 9**

**Memoria-txartela ........ 10**

**Ukipen-pantaila erabiltzea ........ 11**
Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak ........ 11
Ukipen-pantailaren kontrola ........ 11

**Hasierako pantaila ........ 13**
Laster-teklak ........ 14
Egoera-barra ........ 15
Zure egoera aldatzea egoera-barran ........ 16
Multitarea funtzioaren erabilera ........ 16

**Deiak ........ 17**
Deitzea ........ 17
Kontaktuen zerrendatik deitzea ........ 17
Dei bati erantzutea edo ez onartzea ........ 17
Sarrerako deien aukerak ........ 18
Markatze lasterra ........ 19
Bigarren deia egitea ........ 19
Deien erregistroak ikustea ........ 19
Deien desbideratzea erabiltzea ........ 20
Deien murrizketa erabiltzea ........ 20
Deien ohiko doikuntzak aldatzea ........ 21

**Kontaktuak ........ 22**
Kontaktu bat bilatzea ........ 22
Kontaktu berri bat gehitzea ........ 22
Talde bat sortzea ........ 22
Kontaktuen doikuntzak aldatzea ........ 23
Informazioa bistaratzea ........ 23

**Mezuak ........ 24**
Mezuak ........ 24
Mezuak bidaltzea ........ 24
Testua idaztea ........ 24
T9 modua ........ 24
Eskuzko idazketa ezagutzea ........ 25
Posta elektronikoa konfiguratzea ........ 25
Mezu elektronikoak berreskuratzea ........ 25
Mezu elektroniko bat bidaltzea kontu berri baten bidez ........ 25
Posta elektronikoaren doikuntzak aldatzea ........ 25
Mezuen karpetak ........ 26
SMSen doikuntzak aldatzea ........ 27
MMSen doikuntzak aldatzea ........ 27

# Edukiak


Beste doikuntza batzuk aldatzea....28
Sare sozialen zerbitzuak (SNS)........28
Facebook....29

**Kamera....30**
Bisorea ezagutzea....30
Argazkiak azkar ateratzea....31
Argazkia atera ondoren....31
Konfigurazio aurreratua erabiltzea....32

**Bideokamera....33**
Bisorea ezagutzea....33
Bideo bat azkar egitea....34
Bideo bat grabatu ondoren....34
Konfigurazio aurreratua erabiltzea....35

**Zure argazkiak eta bideoak....36**
Argazkiak eta bideoak ikustea....36
Bideo-irudi baten argazkia egitea.36
Argazkiak ikustea diapositiba-aurkezpen gisa....36
Argazki bat ezartzea pantailaren atzeko plano gisa....37
Argazkiak editatzea....37
Argazki bati efektua gehitzea....38

**Multimedia....40**
Irudiak....40
Argazki bat bidaltzea....40
Irudi bat erabiltzea....40
Irudi bat inprimatzea....41
Irudi bat mugitzea edo kopiatzea..41
Soinuak....41
Soinuak erabiltzea....41
Bideoak....41
Bideoak ikustea....42
Bideo bat bidaltzea....42
Jokoak eta aplikazioak....42
Jokatzea....42
Dokumentuak....42
Telefonora fitxategi bat transferitzea42
Beste zenbait....43
Musika....43
Telefonora musika transferitzea....43
Abesti bat erreproduzitzea....44
Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea..44
FM irratia....44
Irrati-kateak bilatzea....44
Kateak berrezartzea....45

**Antolatzailea....46**
Egutegiari gertaerak gehitzea....46
Zeregin-zerrendari elementu bat gehitzea....46
Data-bilatzailea erabiltzea....46
Ohar bat gehitzea....47
Alarma bat ezartzea....47
Marrazki-panelarekin ohar bat gehitzea....47
Grabagailua....48




# Edukiak


Soinua edo ahotsa grabatzea....48
Kalkulagailua erabiltzea....48
Unitate bat bihurtzea....48
Munduko erlojuari hiri bat gehitzea....49
Kronometroa erabiltzea....49

**PC Sync....50**
LG PC Suite ordenagailuan instalatzea....50
Telefonoa eta PCa konektatzea....50
Telefonoaren informazioaren segurtasun-kopia egitea eta leheneratzea....50
Telefonoaren fitxategiak ikustea PCan....50
Kontaktuak sinkronizatzea....51
Mezuak sinkronizatzea....51
Telefonoa erabiltzea musika sinkronizatzeko gailu gisa....51

**Sarea....52**
Sarera sartzea....52
Gogokoak gehitzea eta haietara sartzea....52
RRS irakurgailua erabiltzea....52
Orri bat gordetzea....53
Gordetako web-orri batera sartzea....53
Nabigatzailearen historia ikustea..53
Web-nabigatzailearen doikuntzak aldatzea....53
Telefonoa modem gisa erabiltzea.53
Googlera sartzea....54

**Ezarpenak....55**
Profilak pertsonalizatzea....55
Pantailaren doikuntzak aldatzea....55
Telefonoaren doikuntzak aldatzea56
Memoria-administratzailea erabiltzea....56
Konektagarritasuneko doikuntzak aldatzea....57
Fitxategiak Bluetooth bidez bidaltzea eta jasotzea....58
Bluetootharen doikuntzak aldatzea....59
Telefonoa beste Bluetooth-gailu bati lotzea....59
Bluetooth-entzungailuak erabiltzea....59
Softwarea eguneratzea....60

**Osagarriak....61**

**Datu teknikoak....62**

**Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak....64**

# Telefonoa ezagutzea



**Entzungailua**

**Pantaila nagusia**

**Deitzeko tekla**
• Telefono-zenbakiak markatzen ditu, eta sarrerako deiei erantzuten die.

**Amaitzeko tekla**

**Aldi bereko zereginen tekla**



**Entzungailu estereoen edo esku libreko gailuen konektorea**

**Pizteko/blokeatzeko tekla**
• Labur sakatu pantaila aktibatzeko/desaktibatzeko.
• Luze sakatu pizteko/itzaltzeko.

⚠ **OHARRA**: Telefonoaren gainean objektu astun bat jartzen baduzu, edo telefonoaren gainean esertzen bazara, poltsikoan duzula, kaltetu egin daiteke LCD bisorea edo ukipen-pantailaren funtzionaltasuna.



# Telefono irekiaren ikuspegia



**Alboko botoiak**
• **Hasierako orria agertzen denean**: txirrinaren edo teklatuaren bolumena.
• **Telefonoz hitz egiten ari zarela**: entzungailuaren bolumena.

• **Telefonoz hitz egiten ari zarela**:
• Luze sakatu tekla, kameraren menura zuzenean sartzeko.



**Kargagailua, kablea**



**Bateriaren tapa**

**MicroSD txartelaren zirrikitua**

**Flasha**

**Bateria**

**Kameraren kanpoko lentea**

**SIM txarteleko ontzia**

# SIM txartela eta bateria jartzea

1 **Atera bateriaren tapa.**

Altxatu bateriaren azpiko ertza, eta atera kontu handiz bere lekutik.



2 **Jarri SIM txartela**

Bultzatu SIM txartela haren euskarriaren barnerantz, txartelaren urre-koloreko kontaktuak behe rantz daudela ziurtatuz. SIM txartela instalatu aurretik, ziurtatu telefonoaren bateria kendu duzula. SIM txartela ateratzeko, tiratu txartelari kontu handiz.



⚠ **OHARRA**: ez erabili azazkalak bateria ateratzeko.egin daiteke LCD bisorea edo ukipen-pantailaren funtzionaltasuna.

⚠ **OHARRA**: ez atera bateria telefonoa piztuta dagoela, kaltetu egin baitaiteke.

3 **Instalatu bateria**

Sartu bateriaren ezkerreko aldea bateriaren tokiko goiko aldean. Ziurta tu bateriaren kontaktuak telefonoaren borneekin lerrokatuta daudela. Sakatu bateriaren ezkerreko zatia, bere tokian ahokatu arte ("klik" entzungo da).



# Telefonoa kargatzea

Kendu GM360 telefonoaren alboko kargagailu-hartunearen estalkia. Konektatu telefonoarekin datorren bidaiarako egokigailua (kargagailua) eta USB-kablea. Konektatu USB-kablea telefonora eta korronte-hartunera. Pantailan "Batería llena" mezua agertu arte kargatu behar da GM360 modeloa.

**OHARRA**: lehen karga osorik egin behar da, bateriaren bizitza erabilgarria hobetzeko. Ez egin kasurik lehen aldiz "Batería llena" mezua jasotzean, eta telefonoa gau osoan kargatzen eduki.



# Memoria-txartela

### Memoria-txartela instalatzea

Telefonoaren memoria handitu egin dezakezu MicroSD memoria-txartel batekin.

**OHARRA**: aukerako osagarria da memoria-txartela.

**1** Ireki microSD txartelak sartzeko zirrikituaren tapa (telefonoaren atzealdean dago).



**2** Lerratu microSD txartela zirrikituan, bere lekuan ahokatu arte ("klik" egingo du). Egiaztatu urre-koloreko kontaktu-eremua beherantz jarrita dagoela.

### Memoria-txartela formateatzea

Baliteke memoria-txartela dagoeneko formateatua egotea. Hala ez bada, formateatu egin beharko duzu erabili aurretik.

**1** Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Ajustes del teléfono** aukerara, Ajustes fitxan.

**2** Ukitu **Info. memoria**, eta hautatu **Memoria externa**.

**3** Ukitu **Formato**, eta, ondoren, egiaztatu egindako aukera.

**4** Idatzi pasahitza, halakorik zehaztuta badago. Txartela formateatu egingo da, eta prest egongo da erabiltzeko.

**OHARRA**: memoria-txartelean edukirik badago, karpeten egitura aldatu egingo da formateatzean, fitxategi guztiak ezabatuko baitira.

# Ukipen-pantaila erabiltzea

## Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak

- Elementu bat hautatzeko, ukitu ikonoaren erdialdea.
- Ez sakatu gogorregi. Pantaila sen ikorra da, eta ukitu arin eta irmoak detektatzeko gai da.
- Erabili atzamarraren punta nahi duzun aukera ukitzeko. Saiatu beste teklarik ez ukitzen.
- GM360 erabiltzen ari ez bazara, blokeo-pantailara itzuliko da.

## Ukipen-pantailaren kontrola

GM360ren ukipen-pantailako kontrolak dinamikoki aldatzen dira, egiten ari den lanen arabera.

### Aplikazioak irekitzea

Edozein aplikaziotara sartzea oso erraza da: dagokion ikonoa sakatu besterik ez da egin behar.



# Ukipen-pantaila erabiltzea

**Pantailan zehar ibiltzea**

Arrastatu alderik alde leku batetik bestera joateko. Zenbait pantailatan, dei-erregistroen zerrendakoan, adibidez, gora edo behera ere mugi zaitezke.




**Mugimendua blokeo-pantailan**

Mugimendua blokeo-pantailan: definitu mugimendu bat aplikazioetarako 9 sarbide azkarretarako.

Blokeo-pantailan mugimendua eginda, erabiltzaileak telefonoa desblokeatu eta mugimendu jakin baten bidez dagokion aplikazioa zuzenean exekutatu ahal izango du.

Funtzio hau konfiguratzeko,

1 Hautatu - Pantailaren doikuntzak - Mugimendua blokeo-pantailan

2 Arrastatu eta askatu mugimendu gogokoa pantailaren beheko aldetik esleitu nahi diozun aplikaziora.

**IRADOKIZUNA**: Marraztu ? pantaila horretako Mugimendua blokeo-pantailan menura joateko.

# Hasierako pantaila

Arrastatu eta nahi duzuna hauta dezakezu mota guztietako pantaila inaktiboetan.




**Widget-en hasierako pantaila** pantailaren beheko eskuinaldeko ukituta, widget mugikorraren panela agertuko da. Widget bat arrastatzeko funtzioarekin erregistratzean, askatzen den puntuan sortzen da widget-a.




**Markaketa bizkorreko hasierako pantaila**: ukituz gero, markaketa bizkorreko zerrenda agertuko da. Hasierako pantaila horretan zuzenean deitu, mezua bidali edo kontaktua editatu dezakezu.




**Livesquare hasierako pantaila**: Livesquare pantailan, avatar bati esleitutako zenbakira deiak egin edo mezuak bidal ditzakezu, erraz. Deien, mezuen edo kontaktuen funtzioa erabiltzeko, hautatu avatar bat eta aukeratu horrekin erabili nahi duzun **laster-teklaren** ikonoa.

**IRADOKIZUNA**: Hiru hasierako pantailatan oinarritzen da erabiltzailearen interfazea. Hasierako pantaila baten ordez beste bat jartzeko, mugitu pantailan ezkerretik eskuinera edo alderantziz.

## Laster-teklak

Hasierako pantailako laster-teklekin, ukitu bakarra eginda sar zaitezke funtziorik ohikoenetara.

Ukitu ikono hau dei bat egiteko ukipen-markaketako teklatura sartzeko.

Ukitu ikono hau **kontaktu** - zerrenda irekitzeko. Deitu nahi duzun telefono-zenbaki bat bilatzeko, idatzi kontaktuaren izena pantailaren goialdean, ukipen-teklatuaren bidez. Kontaktu berriak sortu eta lehendik dituzunak edita ditzakezu.

Ukitu hau **Mensajes** menura sartzeko. Hemendik, SMS edo MMS berri bat sortu edo mezuen karpeta ikus dezakezu.

Ukitu ikono hau **Menu nagusia** irekitzeko; lau kategoriatan banatua dago.

# Hasierako pantaila

## Egoera-barra

Egoera-barran, ikono bidez, hainbat datu agertzen dira, hala nola seinalearen intentsitatea, mezu berriak eta bateria-maila, eta, horrez gain, Bluetootha edo GPRSa aktibatuta dauden adierazten du.

Beheko taulan agertzen da egoera-barrako ikonoen esanahia.

| Ikonoa | Deskribapena |
| --- | --- |
| | Aldi bereko zereginak |
| | Sarearen seinalearen intentsitatea (barra-kopurua aldatzen da) |
| | Sare-seinalerik ez |
| | Bateriari gelditzen zaion bizitza |
| | Bateria agortua |
| | SMS berria |
| | Ahots-mezu berria |
| | Mezuen sarrerako postontzia betea |
| | Errorea gertatu da mezua bidaltzean |

| Ikonoa | Deskribapena |
| --- | --- |
| | Errorea gertatu da multimedia-mezua bidaltzean |
| | Alarma ezarrita |
| | Erabiltzen ari den profil pertsonalizatua (aldatu egingo da ikonoan agertzen den zenbakia) |
| | Normal profila erabiltzen ari da |
| | Exterior profila erabiltzen ari da |
| | Silencio profila erabiltzen ari da |
| | Entzungailuak erabiltzen ari da |
| | Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta |
| | EDGE erabiltzen |
| | Desplazamendua |
| | Hegaldi-modua aktibatuta |
| | Bluetootha aktibatuta |
| | BGM erreproduzitzea |
| | BGM geratzea |
| | Memoria-txartela aktibatuta dago erabiltzeko prest |

# Hasierako pantaila

| Ikonoa | Deskribapena |
|---|---|
|  | **Sarrerako mezu elektronikoetarako Sarrerako posta elektronikoa begiratzeko:** Ukitu **Juegos y aplicaciones Entretenimiento** atalean eta, ondoren, ukitu **Aplicaciones**. ***Erne**: eremu geografikoaren edo SIM txartelaren operadorearen arabera, baliteke erabiltzaileak aukerarik ez izatea sarrerako posta elektronikoa erabiltzen ari dela WAPera (edo MMSetara) sartzeko. |

## Zure egoera aldatzea egoera-barran

Ukitu egoera-barraren erdigunea, **Resumen de estado** irekitzeko. Orduaren, sarearen, zerbitzuaren IDaren, bateriaren, telefonoaren memoriaren, kanpoko memoriaren, profilaren, MP3aren eta Bluetootharen uneko egoera erakusten du. Profil-mota konfiguratu, MP3a erreproduzitu/gelditu eta Bluetootha aktiba/desaktiba ditzakezu.

## Multitarea funtzioaren erabilera

Sakatu Multitarea tekla, Multitarea menua irekitzeko. Menu horretatik, exekutatzen ari diren aplikazio guztiak ikusi eta horietara joan zaitezke ukitu bakarrarekin. Atzealdean aplikazioren bat martxan badago (adibidez, joko bat edo FM irratia), egoera-barran agertuko da.

# Deiak

## Deitzea

1 Ukitu menua irekitzeko.

2 Adierazi zenbakia teklatuaren bidez.

3 Ukitu deitzeko.

4 Deia amaitzeko, sakatu

**IRADOKIZUNA**: Nazioarteko dei bat egitean + sartzeko, luze sakatu 0+ tekla.

**IRADOKIZUNA**: Sakatu labur pizteko tekla ukipen-pantaila blokeatzeko eta nahi gabe deirik ez egiteko.

## Kontaktuen zerrendatik deitzea

1 Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** aukerara sartzeko.

2 Ukitu **Nombre** koadroa pantailaren goiko aldean, eta sartu teklatuarekin deitu nahi duzun kontaktuaren lehen letrak.

3 Zerrendan, deitu nahi duzun kontaktuaren ondoan dagoen **Llamar** ikonoa ukitu. Kontaktu horrek bat baino gehiago erregistratuta badu, deia aurrez zehaztutako zenbakira egingo da.

4 Halaber, kontaktuaren izena ukitu eta nahi den zenbakia hauta dezakezu, zenbaki bat baino gehiago duen kasuan. Horrez gain, ere ukitu dezakezu, aurrez zehaztutako zenbakira deitzeko.

## Dei bati erantzutea edo ez onartzea

Telefonoak jotzen duenean, sakatu funtzio ugariko tekla deiari erantzuteko.

Lerratu tapa gorantz, txirrina isilarazteko. Horrek telefonoa desblokeatuko du, blokeatuta dagoen kasuan. Ondoren, sakatu. Hori oso erabilgarria da, bilera batean Silencio profila jartzea ahaztu bazaizu. Sakatu sartzen ari den deia ez onartzeko.

# Deiak

## Sarrerako deien aukerak




**Itxaroteko egoeran**: ukitu dei bat zain jartzeko.

**Isilik**: ukitu mikrofonoa itzaltzeko, zurekin hizketan ari den pertsonak entzun ez zaitzan.

**Bozgorailua** ukitu bozgorailua aktibatzeko.

**Aukerak**: ukitu sarrerako deiaren aukeren zerrenda agertzeko.

Ukitu deitzen ari zarela kontaktuak bilatzeko.

Ukitu deiari beste pertsona bat gehitzeko.

Ukitu zenbaki-teklak ireki eta bigarren deia egiteko. Funtzio horren bidez, gainera, telefono-zerbitzu automatizatuetara deitzean –dei-zentroetara deitzean, adibidez– zenbaki-aukerak dituzten menuetan nabiga dezakezu.

**IRADOKIZUNA**: aukera-zerrenda batean edo kontaktu-zerrendan mugitzeko, ukitu ikusten den azken elementua, eta lerratu pantailan atzamarra gorantz. Zerrenda gora joango da, elementu gehiago ikus daitezen.

## Markatze lasterra

Maiz erabiltzen duzun kontaktu bat eslei diezaiokezu markatze lasterreko zenbaki bati.

1 Hautatu **Contactos**, COMUNICACIÓN fitxan, eta hautatu **Marcación rápida**.

2 Ahots-postontzia ezarrita dago 1 markaketa lasterreko aukeran, eta ezin da aldatu. Ukitu beste edozein zenbaki markaketa lasterreko kontaktu bati esleitzeko.

3 Kontaktuen aurkibidea irekiko da. Hautatu zer kontakturi esleitu nahi diozun zenbakia, dagokion telefono-zenbakia behin ukituta. Kontaktua aurkitzeko, ukitu Nombre eremua eta sartu dagokion kontaktuaren izenaren lehen letra.

## Bigarren deia egitea

1 Lehen deian, ukitu eta idatzi zer zenbakitara deitu nahi duzun.

2 Sakatu tekla deia egiteko.

3 Bi deiak agertuko dira deiaren pantailan. Lehen deia blokeatu egingo da, eta zain jarri.

4 Dei batetik bestera aldatzeko, ukitu edo sakatu atxikitako deiaren zenbakia.

5 Dei bat edo biak amaitzeko, sakatu eta hautatu **Fin**, **Todos**, **Retenida** edo **Activa**.

**IRADOKIZUNA**: Ukitu dei-erregistroko banakako edozein sarrera, horren data, ordua eta iraupena ikusteko.

**OHARRA**: egindako dei guztiak kobratuko zaizkizu.

## Deien erregistroak ikustea

Ukitu **Historial reciente**, COMUNICACION fitxan.

**IRADOKIZUNA**: Ukitu dei-erregistroko banakako edozein sarrera, horren data, ordua eta iraupena ikusteko.

# Deiak

## Deien desbideratzea erabiltzea

1 Ukitu Llamadas, AJUSTES fitxan.

2 Ukitu **Desvío de llamadas**.

3 Hautatu ahots-dei guztiak desbideratzea, linea okupatua da goenean, erantzunik ez dagoenean edo hitz egin ezin duzunean.

4 Idatzi deiak zein zenbakitara desbideratzea nahi duzun.

5 SUkitu **Solicita**r, funtzio hori aktibatzeko.

**OHARRA**: deien desbideratzea erabiltzetik eratorritako gastuak ordaindu egin behar dira. Informazio gehiago izateko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

**IRADOKIZUNA**: deien desbideratze guztiak desaktibatzeko, hautatu **Desvío llamadas** menuko **Desactivar todo**.

## Deien murrizketa erabiltzea

1 Ukitu Llamadas, AJUSTES fitxan.

2 Ukitu **Restringir llamadas**.

3 Hautatu sei aukera hauetakoren bat (edo guztiak):

**Irteerakoak**

**Irteerako nazioarteko deiak**

**Irteerako nazioarteko deiak, nazio nalak ezik**

**Sarrerakoak**

**Atzerrian jasotako deia**

**Guztia desaktibatu**

4 Sartu deiak murrizteko pasahitza. Galdetu sare-operadoreari zerbitzu honi buruz.

**IRADOKIZUNA**: Hautatu **Números de marcación fija, Ajustes de llamadas** menuan zure telefonotik deitzeko zenbaki-zerrenda bat aktibatu eta konpilatzeko. Operadoreak emandako PIN2 kodea behar duzu. Markaketa finkoko zerrenda sortzen baduzu, zerrenda horretako zenbakietara bakarrik deitu ahal izango da telefonotik.

## Deien ohiko doikuntzak aldatzea

1 Ukitu Llamadas, AJUSTES fitxan.

2 Mugitu eta ukitu **Ajustes comunes**. Elementu hauei dagozkien doikunt zak aldatu daitezke hemen:

**Llamada rechazada**: lerratu etengailua Activado posiziora, baztertutako deien zerrenda nabarmentzeko. Dei guztiak, kontaktu zehatzak, erregistratu gabeko zenbaki nahiz taldeak (agendan ez daudenak) edo erabiltzailearen IDrik ez dutenak hautatzeko, ukitu testu-laukia. Ukitu **Guardar**, konfigurazioa aldatzeko.

**Enviar núm. propio**: norbaiti deitzean zure zenbakia erakutsi nahi duzun hautatzeko balio du.

**Marcación automática**: **aktibatzeko**, lerratu etengailua ezkerrerantz, eta **desaktibatzeko**, lerratu eskuinerantz.

**Modo respuesta**: hautatu telefonoari nola erantzun, bidalketa-teklarekin ala edozein teklarekin.

**Aviso minuto**: aktibatzeko, lerratu etengailua ezkerrerantz; deiak iraun bitartean, minuturo tonu bat entzungo duzu.

**Respuesta Bluetooth**: hautatu **Manos Libres**, Bluetooth aurikularra erabiliz erantzuteko deiari, edo hautatu **Teléfono**, deiari erantzuteko telefonoaren tekla bat sakatzeko.

**Guardar número**: hautatu **Sí** zenbaki bat gordetzeko.

# Kontaktuak

## Kontaktu bat bilatzea

Kontaktua bilatzeko bi era daude:

1 Ukitu **Agenda**, COMUNICACIÓN fitxan.

2 Ukitu **Buscar**.

3 Kontaktuen zerrenda ikusiko duzu. Nombre eremuan kontaktu baten izenaren lehen letra idazten baduzu, letra horrekin hasten den lehen izenera mugituko da.

> **IRADOKIZUNA:** Nombre eremua ukituta, teklatu alfabetikoa bistaratzen da.

## Kontaktu berri bat gehitzea

1 Ukitu **Agenda**, COMUNICACIÓN fitxan, eta, ondoren, ukitu Añadir contacto.

2 Hautatu kontaktua **Telefonoan** ala **SIM**ean gorde nahi duzun.

3 Sartu izena eta abizena.

4 Kontaktu bakoitzari bost zenba kiraino eslei diezazkiokezu. Sarrera bakoitzak hauetako bat du aurrez konfiguratua: **Móvil, Inicio, Oficina, Localizador, Fax eta General**.

5 Sartu posta elektronikoaren helbidea. Bi helbide elektroniko gehitu diezaiokezu kontaktu bakoitzari, gehienez.

6 Esleitu kontaktua talde bati edo gehiagori. Kontaktu bakoitzari hiru talde eslei diezaiokezu gehienez. Hautatu **Ningún grupo, Familia, Amigos, Compañeros, Colegio edo VIP**.

7 Aukera hauetako bat ere gehitu dezakezu: **Tono llamada, Cumpleaños, Aniversario, Página de inicio, Dirección particular, Nombre empresa, Profesión, Dirección de empresa, Notas** eta **Livecon**.

Ukitu **Guardar** kontaktua gordetzeko.

## Talde bat sortzea

1 Ukitu **Agenda**, COMUNICACIÓN fitxan. Ukitu **Grupos**.

2 Ukitu **Añadir grupo** edo ukitu eta hautatu **Añadir grupo**.

3 Sartu izen bat talde berriarentzat. Taldeari txirrin-tonu bat ere eslei diezaiokezu.

4 Ukitu **Guardar**.

> **OHARRA:** talde bat ezabatzen bada, talde horri esleitutako kontaktuak ez dira galduko. Kontaktuetan gordeta egongo dira.

## Kontaktuen doikuntzak aldatzea

Kontaktuen doikuntzak egokitu ditzakezu, agenda zuk nahi bezala erabiltzeko.

1 Ukitu **Agenda**, COMUNICACIÓN fitxan, eta, ondoren, ukitu **Ajustes**.

2 Hemen doikuntza hauek alda ditzakezu:

**Ajustes de la lista de contactos:** doitu **Ubicación de contactos, Visualización de nombres** eta komando azkarren teklaren doikuntzak.

**Copiar:** kontaktuen informazioa kopiatzeko aukera ematen du SIM txarteletik telefonora edo telefonotik SIM txartelera. Aldiko bat edo denak batera hauta ditzakezu.

**Mover:** Copiar funtzioa bezala funtzionatzen du, baina kontaktua eraman den tokian bakarrik gordeko da.

**Enviar todos los contactos por Bluetooth:** zure kontaktu guztiak beste gailu batera bidaltzen ditu Bluetooth bidez. Aukera hori erabiltzeko, Bluetooth funtzioa aktibatu behar duzu.

**Realizar copia de seguridad de contactos: ikus** Telefonoaren informazioaren segurtasun-kopia egitea eta leheneratzea

**Restaurar contactos: ikus**

telefonoaren informazioaren segurtasun-kopia egitea eta leheneratzea.

**Borrar contactos:** kontaktu guztiak ezabatzeko aukera ematen du. Hautatu **Teléfono** edo **SIM**, eta ukitu **Sí** ziur bazaude kontaktu guztiak ezabatu nahi dituzula.

## Informazioa bistaratzea

1 Ukitu **Agenda**, COMUNICACIÓN fitxan, eta, ondoren, ukitu **Ajustes**.

2 Hauek ikus ditzakezu: Números de servicio, Número propio, Info. memoria (memoriaren erabilera erakusten du) eta Mi perfil.

> **IRADOKIZUNA:** Zure bisita-txartela gehitzeko, hautatu **Mi tarjeta de visita**, eta gehitu informazioa, kontaktuekin egiten duzun bezala. Amaitzeko, ukitu **Guardar**.

# Mezuak

## Mezuak

GM360ren bidez, SMS eta MMSak konbinatzen dira menu intuitibo eta erabilerraz batean.

## Mezuak bidaltzea

1 Ukitu **Mensajes**, COMUNICACIÓN fitxan. Eta ukitu **Nuevo mensaje**, mezu berri bat idazteko.

2 Ukitu **Insertar** irudi, bideo, soinu edo txantiloi bat... gehitzeko.

3 Ukitu **Enviar**, pantailaren beheal dean, hartzaileen eremura sartzeko. Gero, sartu zenbakia edo ukitu kontaktu bat hautatzeko. Hainbat kontaktu gehitu daitezke.

4 Ukitu **Enviar**, prest dagoenean.

⚠ **OHARRA**: SMS bati irudi, bideo edo soinu bat gehitzen badiozu, MMS bihurtzen da automatikoki, eta horri dagokion kostua kobratuko zaizu.

## Testua idaztea

GM360ren bidez, SMS eta MMSak konbinatzen dira menu intuitibo eta erabilerraz batean.

Testua sartzeko bost modu daude: **Teclado numérico, Teclado, Pantalla de escritura manual, Cuadro de escritura manual, Doble cuadro de escritura manual**. Idazteko metodoa hautatzeko, ukitu eta **Método entrada**.

Ukitu T9 modua aktibatzeko. Idazteko metodo gisa Teclado hautatzen bada soilik agertzen da ikono hori.

Ukitu idazteko hizkuntza aldatzeko.

Ukitu zenbakiak, ikurrak edo testua hautatzeko. Sakatu Shift tekla maiuskulak eta minuskulak aldatzeko.

## T9 modua

T9 moduak hiztegi integratu bat erabiltzen du; hiztegi horrek erabiltzaileak idazten dituen hitzak ezagutzen ditu, ukitzen dituen tekla-sekuentzien arabera. Idazten ari den hitza aurreikusten du, eta alternatibak proposatzen ditu.

## Eskuzko idazketa ezagutzea

Eskuz idazteko moduan, zuk pantailan idazten duzu, eta GM360k idatzitakoa mezu bihurtzen du. Hautatu **Pantalla de escritura manua**l edo **Cuadro de escritura manual,** zeuk nahiago duzuna.

## Posta elektronikoa konfiguratzea

Ukitu **E-mai**l, COMUNICACIÓN fitxan.

Posta elektronikoko kontua konfiguratu gabe badago, abiarazi posta elektronikoa konfiguratzeko laguntzailea, eta jarraitu pausoei, amaitu arte. Doikuntzak egiazta eta edita ditzakezu, hautatuta. Kontua sortzean automatikoki bete ziren doikuntza gehigarriak ere egiazta ditzakezu.

## Mezu elektronikoak berreskuratzea

Mezu elektroniko berriak dauden ikusteko, kontua ikus dezakezu (eskuz edo automatikoki). Eskuz egiteko:

1 Ukitu **E-mail**, COMUNICACIÓN fitxan.

2 Ukitu erabili nahi duzun kontua.

3 Hautatu **Buzón de entrada**

4 Mezu elektroniko bat jasotzeko, hautatu **Recuperar** edo **Sincronizar**, aukeren menuan.

## Mezu elektroniko bat bidaltzea kontu berri baten bidez

1 Ukitu **Nuevo E-mail**, eta mezu elektroniko berri bat irekiko da.

2 Idatzi mezua.

3 Ukitu **Enviar**, mezu elektronikoa bidaltzeko.

## Posta elektronikoaren doikuntzak aldatzea

1 Ukitu **E-mail**, COMUNICACIÓN fitxan.

2 Ukitu eta hautatu **Email Ajustes**, gero doikuntza hauek egokitu ahal izateko:

**Cuentas de correo electrónico**
**E-mail preferido Permitir E-mail de respuesta**: irakurri dela jakinarazteko mezuak bidaltzeko.

# Mezuak

**Solicitar correo electrónico de respuesta**: irakurri dela jakinarazteko mezuak eskatzeko.

**Intervalo de recuperación**: GM360 telefonoak mezu elektroniko berriak zer maiztasunekin begiratuko dituen hautatzeko.

**Cantidad por recuperar**: berreskuratu nahi diren mezuen kopurua hautatzeko.

**Incluir mensaje en Reenviados**: jatorrizko mezua erantzunean sartu nahi duzun hautatzeko.

**Incluir archivo adjunto**: aukera ematen du erantzunetan jatorrizko fitxategia eransteko.

**Recuperación auto. en itinerancia**: atzerrian zaudenean zure mezuak automatikoki berreskuratu nahi dituzun hautatzeko (mugikortasuna).

**Notificación de nuevo E-mail**: mezu elektroniko berriak iristean jakinarazteko.

**Firma**: aktibatu funtzio hau posta elektronikorako sinadura bat sortzeko.

**Prioridad**: mezu elektronikoen lehentasun-maila ezartzeko.

**Tamaño máximo de envío**: bidalitako mezu elektronikoen gutxieneko neurria ezartzeko

**Contador de E-mail**: nahi duzun data sartzeko. Epe horretan kontsultatutako mezu elektronikoak ikusteko.

## Mezuen karpetak

**Mensajes** menuak bosta karpeta ditu.

**Bandeja de entrada**: jasotzen dituzun mezu guztiak Bandeja de entrada karpetan gordetzen dira.

**Borradores**: idazten amaitu gabe dituzun mezuak gordetzen dira.

**Bandeja de salida**: mezuak bidali bitartean, karpeta horretan gordetzen dira behin behinik.

**Emails enviados**: bidalitako mezu guztiak karpeta honetan gordetzen dira

## SMSen doikuntzak aldatzea

Ukitu **Mensajes**, COMUNICACIÓN fitxan, eta, ondoren, ukitu **Ajustes**. Hautatu SMS. Elementu hauetan aldaketak egin ditzakezu:

**Centro SMS**: mezu-zentroaren xehetasunak idazteko.

**Informe de entrega**: aukera ematen du, etengailua ezkerrera lerratuta, zure mezua egoki bidali den egiaztatzeko.

**Periodo de validez**: zure mezuak mezu-zentroan zenbat denbora egongo diren hautatzeko.

**Tipos de mensajes**: aukera ematen du testua **Texto, Voz, Fax, X.400** edo **E-mail** bihurtzeko.

**Codificación** – pertsonaiak nola kodetuta dauden hautatzeko. Horrek eragina du mezuaren tamainan, eta, horren ondorioz, datuen transmisioaren kostuan ere bai.

**Enviar texto largo como**: mezua SMS anitz gisa edo MMS gisa bidaltzeko.

## MMSen doikuntzak aldatzea

Ukitu **Mensajes**, COMUNICACIÓN fitxan. Ukitu **Ajustes** eta **MMS**. Elementu hauetan aldaketak egin ditzakezu:

**Recuperación**: hautatu **Red propia** edo **Red de itinerancia**. Gero **Manual** hautatzen baduzu, MMS mezuen jakinarazpenak soilik jasoko dituzu; gero, zeuk erabakiko duzu osorik deskargatu nahi dituzun ala ez.

**Informe de entrega**: entregatu izanaren jakinarazpena eskatu eta/edo baimendu hautatzeko.

**Informe de lectura**: irakurri izanaren jakinarazpena eskatu eta/edo baimendu hautatzeko.

**Prioridad**: MMSaren lehentasun-maila hautatzeko. Periodo de validez: zure mezuak mezu-zentroan zenbat denbora egongo diren hautatzeko.

**Duración diapositiva**: diapositibak pantailan modu lehenetsian zenbat denbora egongo diren hautatzeko.

# Mezuak

**Modo de creación**: MMSak murrizketekin edo murrizketarik gabe sortu hautatzeko.

**Hora entrega**: mezu bat bidaltzeko zenbat denbora itxaron behar den hautatzeko balio du.

**Centro MMS**: multimedia mezuen zentro bat hautatzea edo gehitzea hautatzeko.

## Beste doikuntza batzuk aldatzea

Ukitu **Mensajes**, COMUNICACIÓN fitxan. Eta ukitu **Ajustes**.

**Buzón de voz**: ukitu ahots-postontziko zerbitzu bat gehitzeko. Jarri harremanetan zure sare-operadorearekin eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

**Mensaje de servicio**: zerbitzu-mezuak jaso edo blokeatu nahi dituzun hautatzeko. Mezuen segurtasuna ere ezar dezakezu, bidaltzaile seguruen eta ez-seguruen zerrendak sortuta, **Servicio de seguridad** aukeran.

**Contador de mensajes**: hautatu mezuak kontatzeko epea ezarri nahi duzun.

**Información servicio**: hautatu informazio-zerbitzua aktibatu edo desaktibatu nahi duzun, eta hautatu kanalak eta hizkuntzak.

## Sare sozialen zerbitzuak (SNS)

GM360k SNSak ditu, zure sare soziala erabiltzeko eta administratzeko. Sare sozialeko zure egoera eguneratu dezakezu, eta zure lagunen sare sozialetako eguneraketak ikusi.

Ukitu **Red social** menua, eta hautatu gunea, honela: Orkut, Facebook, Twitter, Picasa, Flickr eta Myspace.

**IRADOKIZUNA**: Telefonoak Facebooken jatorrizko aplikazioa aurrez instalatuta dakar, errazago sartzeko. Java teknologian oinarritutako java aplikazio bat da Twitter. Beste aplikazio batzuk WAP zerbitzuetara sartzen dira (haririk gabeko aplikazioen protokoloa).

**OHARRA**: SNS funtzioa datu-aplikazio intentsibo bat da. Linean konektatzeak eta zerbitzuak erabiltzeak gastu gehigarriak sor ditzake. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

## Facebook

**Inicio**: hasi saioa, eta zure lagunen egoera eguneratua ikusiko duzu. Idatzi egoera berriari buruzko zure komentarioa, edo ikusi besteenak. Ukitu Opciones hauetako bat hautatzeko: Actualizar, Filtro noticias (Actualización de estado, Foto), Borrar edo Cerrar sesión. + ikonoa sakatuta ere idatz ditzakezu komentarioak.

**Perfil**: Muro > Actualizaciones de estado hautatu, eta zure egoera idatz dezakezu. Kontsultatu informazioa, eta kargatu argazkia, Álbum > Subir foto ukituta. Hautatu Ir a imágenes edo Hacer foto, eta, gero, jarri azpitituluren bat irudiei.

**Amigos**: sare sozialetan lagun asko aurkitu eta haien egoera ikus dezakezu. Bilatu zure lagunak Facebooken, Buscar fitxa hautatuta.

**Mensajes**: sare sozialeko mezu guztiak erakusten ditu. Bandeja de entrada/enviados karpeta ikus dezakezu, eta sare sozialeko mezu bat idatzi.

**IRADOKIZUNA**: Facebook Feed Widget-ekin, Facebookeko berrien widget-a gehitu dezakezu zure hasierako orrira. Arrastatu widget-en ontzira Facebookeko berrien widgeta, eta ukitu **Aceptar**. Facebooken widget-a hasierako pantailan erregistratzen bada, sare sozialaren guneko azken 3 berriak erakutsiko ditu. Berrien widget-a sakatuta, Facebooken aplikaziora zuzenean ere sar daiteke.

SNS doikuntzetan, SNS aktiba eta desaktiba daiteke, eta saioa hasi edo amaitu SNS kontuan. Konexio automatikoaren menuan denbora-tarte jakin bat ezartzen da; SNS automatikoki aktiba edo desaktiba daiteke.

# Kamera

## Bisorea ezagutzea

**Exposición**: kontraste txikiko irudi bat lausoa izango da; kontraste handikoa, berriz, garbiagoa.

**Zoom**: handitzeko edo txikitzeko. Egindako argazkiaren neurriaren arabera aktibatzen da funtzio hau.



**Volver**

**Argazkiak ateratzea**

**Modo de vídeo**: ukitu ikono hori bideo modura aldatzeko.

**Galería**: Cámara moduan gordetako argazkiak eskuratu ditzakezu. Ukitu, eta argazki-galeria pantailan bistaratuko da.

**Ajustes**: ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus **Konfigurazio aurreratua erabiltzea**.

**Macro**: argazkiak hurbilagotik ateratzeko aukera ematen du.

**Estado del flash**: flasharen argia **Auto, Siempre desactivado** edo **Siempre activado** gisa ezartzeko balio du

**IRADOKIZUNA**: Aukerak agerrarazi ditzakezu pantaila ukituta. Segundo batzuk igarotzean desagertuko dira.



## Argazkiak azkar ateratzea

1 Sakatu tekla (telefonoaren eskuinean da).

2 Kamerak gaia fokatu duenean, ukitu (pantailaren erdiko eskuineko aldean) argazki bat ateratzeko. Bestela, telefonoaren albo batean dagoen tekla irmo sakatu.

**IRADOKIZUNA**: mugitu kameraren edo bideoaren ikonoa gora edo behera, bisorearen erdiko eskuineko aldean, kameraren edo bideoaren modura aldatzeko.

## Argazkia atera ondoren

Argazkia pantailan bistaratuko da. Irudiaren izena pantailaren beheko aldean bistaratuko da.

Ukitu ikono hau argazkia mezu gisa, mezu gisa, mezu elektroniko gisa edo Bluetooth bidez bidaltzeko.

Ukitu argazki bat hasierako pantaila gisa ezartzeko.

Ukitu ikono hau argazkia editatzeko.

Ukitu ikono hau hautatutako irudiaren izena aldatzeko.

Ukitu ikono hau grabatu berri duzun bideoa ezabatzeko, eta berretsi ezabatu nahi duzula, Sí ukituta. “Eliminado” mezua agertzen da.

Ukitu ikono hau galerian mugitzeko.



# Kamera

## Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu , konfigurazio aurreratuaren aukerak irekitzeko.

**Modo disparo**: argazkiak ateratzeko bi moduetako bat hautatzeko.

**Efecto de color**: hautatu kolore-tonu bat, egin nahi duzun argazkiari aplikatzeko. Lau kolore-tonu daude aukeran: **Desactivado, Blanco y negro, Negativo** edo **Sepia**.

**Balance de blancos**: **Auto, Incandescente, Soleado, Fluorescente** edo **Nublado** aukerak daude.

**Modo noche**: erabilgarria da leku ilunetan.

**Temporizador automático**: argazkia egiteko botoia sakatzen denetik argazkia egin aurreko unera arte dagoen denbora-tartea konfigura daiteke. Aukeratu denbora-tartea: **3 segundos, 5 segundos** edo **10 segundos**. Taldeko argazkietan zu zeu ere agertu nahi duzunerako egokia.

**Calidad**: hautatu **Súper fina**, **Fina** edo **Normal**. Kalitatea zenbat eta hobea izan, are eta gardentasun handiagoa izango du argazkiak. Dena den, argazkiaren tamaina ere handitu egingo da. Horrek esan nahi du argazki gutxiago gorde ahal izango dituzula memorian.

**Enfoque**: kameraren fokatzea ezartzeko.

**Modo vista**: Pantalla completa edo Imagen completa aukeratu daiteke. Pantalla completa aukeran, irudia moztu egin daiteke, pantailara doitzeko.

**Memoria**: argazkiak telefonoaren memorian edo kanpoko memorian gorde aukeratu dezakezu.

**Mostrar imagen capturada**: hautatu irudia aukerekin bistaratu nahi duzun argazkia atera ondoren.

**Ocultar iconos**: kameraren doikuntza-ikonoak eskuz edo automatikoki hautatu aukeratzeko.

**Sonido obturador**: obturadorearen hiru soinuetako bat hautatzeko.

**Cuadrícula**: aukera hauek dituzu: **Desactivado, Cruz simple edo Cuadrícula de tres por tres.**

**Reiniciar configuración**: kameraren doikuntza guztiak berrezartzeko.



# Bideokamera

## Bisorea ezagutzea



**Zoom**: handitzeko edo txikitzeko

**Irudiaren tamaina**

**Telefonoaren memorian edo kanpo-memorian gordetzea**

**Volver**

**Modo de vídeo**: ukitu ikono hori bideo modura aldatzeko.

**Iniciar grabación**

**Galería**

**Modo de vídeo**: bideo modua hautatzeko.

**Ajustes**: ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus **Konfigurazio aurreratua erabiltzea**.

**Tamaño de vídeo**: **hautatu QVGA (320x240)** edo **QCIF (176x144)**.

**Estado del flash**: soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

**Exposición**: kontraste gutxiko bideo bat lausoa izango da; kontraste handikoa, berriz, garbiagoa.

**IRADOKIZUNA**: bisorearen pantaila argiagoa izateko, sarbide azkarreko aukera guztiak itxi ditzakezu. Bisorearen erdialdea behin bakarrik sakatu behar duzu. Aukerak berreskuratzeko, ukitu pantaila berriro.

# Bideokamera

## Argazkiak azkar ateratzea

1 Sakatu telefonoaren eskuinean dagoen kamera-tekla segundo batzuez.

> **IRADOKIZUNA**: mugitu kameraren edo bideoaren ikonoa gora edo behera, bisorearen erdiko eskuineko aldean, kameraren edo bideoaren modura aldatzeko.

2 Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea bideoz grabatu nahi duzunari begira.

3 Sakatu behin telefonoaren eskuinaldeko kamera-tekla , grabatzen hasteko. Bestela, sakatu puntu gorria .

4 **REC** bisorearen beheko aldean agertuko da, tenporizadore batekin. Hor, bideoaren iraupena agertuko da.

5 Bideoa gelditzeko, sakatu ; berriz martxan jartzeko, sakatu .

6 Grabazioa gelditzeko, ukitu pantailan, edo sakatu berriro grabatzeko botoia .

## Bideo bat grabatu ondoren

Irudi finko bat agertuko da pantailan, grabatutako bideoarena.

Bideoaren izena pantailaren behealdean agertuko da, eta, eskuinean eta ezkerrean, berriz, zazpi ikono egongo dira.

Ukitu ikono hori, bideoa erreproduzitzeko.

Ukitu ikonoa bidea mezu, mezu elektroniko edo Bluetooth bidez bidaltzeko.

Ukitu bideoa editatzeko.

Ukitu ikono hau hautatutako irudiaren izena aldatzeko.

Ukitu ikono hau grabatu berri duzun bideoa ezabatzeko, eta berretsi, **Sí** ukituta. Berriro bisorea agertuko da.

Ukitu berehala beste bideo bat sortzeko.

Ukitu ikono hau gordetako bideo eta irudien galeria ikusteko.




## Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu **Ajustes**, konfigurazio aurreratuaren aukerak irekitzeko.

**Efectos de color**: hautatu kolore-tonu bat, bideo berriari jartzeko. **Desactivado, Blanco y negro, Negativo** edo **Sepia**.

**Balance de blancos**: bideoetan agertzen diren zuri guztiak errealistak izatea bermatzen du zurien balantzeak. Kamerak zurien balantzea behar bezala egokitu dezan, baliteke argi-kondizioak zehaztu beharra izatea. Hautatu **Auto, Incandescente, Soleado, Fluorescente** edo **Nublado**.

**Calidad**: hautatu **Súper fina, Fina** edo **Normal**. Kalitatea zenbat eta hobea izan, orduan eta gardentasun handiagoa izango du argazkiak. Dena den, argazkiaren tamaina ere handitu egingo da. Hala, bideo gutxiago gorde ahal izango dituzu telefonoaren memorian.

**Duración**: bideoen denbora-muga konfiguratzeko. Hautatu bideoa MMS gisa bidali nahi baduzu.

> **IRADOKIZUNA**: MMS iraupena hautatzean, hautatu irudiaren kalitate txikia, bideo luzeagoa egin ahal izateko.

**Memoria**: bideoak **Memoria del teléfono**n edo **Memoria externa**n gorde aukeratzeko.

**Voz**: aukeratu bideoa soinuarekin edo soinurik gabe grabatu nahi duzun.

**Ocultar iconos**: kameraren doikuntza-ikonoak eskuz edo automatikoki hautatu aukeratzeko.

**Reiniciar configuración**: bideokameraren doikuntza guztiak berrabiarazteko.

# Zure argazkiak eta bideoak

## Argazkiak eta bideoak ikustea

1 Ukitu **Galería**, ENTRETENIMIENTO fitxan. Bestela, ukitu kameraren aurrebistaren pantailan. Zure argazkiak eta bideoak ikus ditzakezu.

2 Pantailan galeria bistaratuko da.

3 Ukitu bideoa edo argazkia, fitxategia pantaila osoan irekitzeko.

4 Bideoa erreproduzitzeko, ukitu . Une batez erreprodukzioa geldiarazteko, ukitu .

**IRADOKIZUNA**: mugitu ezkerrera edo eskuinera, beste argazki edo bideo batzuk ikusteko.

## Bideo-irudi baten argazkia egitea

1 Hautatu zer bideoren irudia grabatu nahi duzun

2 Ukitu , irudi bihurtu nahi duzun bideoaren sekuentzia une batez geratzeko, eta ukitu pantailaren goiko ezkerreko, menua irekitzeko.

3 Aukeren menuan, hautatu .

4 Irudia pantailan agertuko da, esleitu zaion irudi-izenaz.

5 Ukitu bideoa berriro ikusteko.

6 Irudia **Mis cosas** karpetan gordeko da, eta galerian agertuko da.

⚠ **OHARRA**: zenbait funtziok ez dute behar bezala funtzionatuko, multimedia-fitxategia telefonoan ez bada grabatu.

## Argazkiak ikustea diapositiba-aurkezpen gisa

Diapositibak aurkezteko moduak banaka bistaratzen ditu galeriako argazkiak, diapositiba-aurkezpen gisa. Bideoak ezin dira ikusi diapositiba-aurkezpen gisa.

1 Ukitu **Galería**n eta, gero, hautatu **Modo diapositivas**.

2 Diapositiba-aurkezpena abiaraziko da.

Aukera hauek dituzte diapositibek:

Ukitu itzultzeko.

Ukitu ikono hau, diapositiba-aurkezpena une batez argazki jakin batean geldiarazteko.

Ukitu berriro, erreproduzitzeari berriz ekiteko.

Ukitu hau, ausaz bistaratzeko.

Ukitu hau, aurkezpena bizkortzeko edo makaltzeko.

## Argazki bat ezartzea pantaila-ren atzeko plano gisa

1 Ukitu **Mis Cosas**, ENTRETENIMIENTO fitxan.

2 Ukitu pantailaren atzealde gisa ezarri nahi duzun argazkia.

3 Ukitu pantaila, menua irekitzeko.

4 Ukitu , eta hautatu Usar como: imagen pantalla de inicio.

5 Argazkiaren neurria alda dezakezu ukituta.

6 Argazkiarekin gustura bazaude, ukitu **Definir**.

7 Hautatu aldatu nahi duzun aukera: **Todos, Pantalla de inicio Widget, Pantalla de inicio Marcación rápida**.

## Argazkiak editatzea

1 Ireki editatu nahi duzun argazkia, eta ukitu , aukerak azal daitezen.

2 Ukitu ikono hauek argazkia aldatzeko:

Mugitu behatza pantailan, eremua hautatzeko.

Argazkiaren gainean esku hutsez marrazteko. Hautatu lau aukeren arteko lerroaren lodiera, eta, gero, erabili nahi duzun kolorea.

Gehitu idazketa irudiari.

Argazkia zigiluekin apaintzeko. Hautatu zigilu eta koloreetako bat, eta hautatu argazkiaren zer lekutan gehitu nahi dituzun.

Marraztutakoa ezabatzeko. Zirriborroaren neurria ere aukera dezakezu.

Ukitu ikono hau galeriara itzultzeko.

# Zure argazkiak eta bideoak

Argazkian egindako aldaketak gordetzeko. Aldatu hori, **Archivo original** fitxategian edo **Nuevo archivo** fitxategian aldaketak gordetzeko. **Arc. Nuevo** hautatu baduzu, idatzi fitxategi-izena.

Argazkiko azken efektua edo aldaketa desegiteko balio du.

Ukitu ikono hau iragazkiaren aukerak irekitzeko.

Hautatutako argazkia doitzeko.



## Argazki bati efektua gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Hautatu argazkiari aplikatzeko aukeretako bat:

**Embellecedor del rostro**: aukera ematen du irudi batean aurpegi bat aukeratu eta hura automatikoki hobetzeko.

**Efecto túnel**: lomografia-efektua.

**Negativo en color**: negatiboaren efektua, koloretan.

**Blanco y negro**: zuri-beltz efektua.

**Sepia**: sepia-efektua.

**Difuminado**: efektu lausotua emateko.

**Nitidez**: argazki-fokatzearen araztasuna aldatzeko, lerratu markatzailea barran zehar. Aldaketak aplikatzeko, hautatu **OK** ikonoa; aldaketak ezeztatzeko, hautatu .

**Efecto mosaico**: ukitu aukera hau, argazkiari mosaiko lausotuaren efektua.

**Pintura al óleo**: olio-margoaren efektua.

**Esbozo**: argazkiari zirriborro-efektua.

**Relieve**: erliebe-efektua.

**Solarizar**: irudia solarizatzen du. Vivo: argitasun- eta distira-efektua.

**Vivo**: argitasun- eta distira-efektua.

**Luz de luna**: argia aldatu eta ilargiarena bezalakoa emateko.

**Antiguo**: antzinako argazkien efektua.

**Resplandor**: argi-izpi baten efektua.

**Dibujos animados**: marrazki bizidunen efektua.

**Acuarela**: akuarela-efektua.

3 Efektua desegiteko, ukitu **Deshacer** .

# Multimedia

Telefonoaren memorian edozein multimedia-fitxategi gorde dezakezu, irudi, soinu, bideo eta joko guztietara erraz sartzeko. Fitxategiak memoria-txartel batean ere gorde ditzakezu. Memoria-txartela erabilita, da telefonoaren memoriako espazioa hustu dezakezu. Fitxategi horiek ENTRETENIMIENTO fitxako **Mis cosas** menuan daude.

## Irudiak

**Imágenes** atalak irudi-zerrenda bat du; besteak beste, hauek sartzen dira: telefonoan aurrez kargatutakoak, erabiltzaileak deskargatutakoak eta telefonoaren kamerarekin hartutakoak.

## Argazki bat bidaltzea

1 Ukitu **Mis Cosas**, ENTRETENIMIENTO fitxan, eta hautatu **Imágenes**. Hautatu nahi dituzun irudiak.

2 Ukitu enviar, eta hautatu MMS, E-mail edo Bluetooth.

## Irudi bat erabiltzea

Pantailaren atzealdean eta blokeatzeko pantailaren atzealdean erabili nahi dituzun irudiak hauta ditzakezu, baita kontaktu bat identifikatzeko ere.

1 Ukitu **Mis Cosas**, ENTRETENIMIENTO fitxan, eta hautatu **Imágenes**. Hautatu nahi dituzun irudiak. Eta ukitu .

2 Ukitu **Usar como**, eta hautatu aukeretako bat:

**Imagen pant. inicio**: hasierako pantailarako atzealde bat definitzeko.

**Bloqueo imagen pantalla**: pantaila inaktiborako atzealdea definitzeko.

**Imagen de contactos**: kontaktu-zerrendako pertsona jakin bati irudi bat esleitzeko, irudi hori ager dadin pertsona horrek deitzen dizunean.

**Imagen de inicio**: telefonoa piztean agertzeko irudi bat ezartzeko.

**Imagen de apagado**: telefonoa itzaltzean agertzeko irudi bat ezartzeko.

## Irudi bat inprimatzea

1 Ukitu **Mis Cosas**, ENTRETENIMIENTO fitxan, eta hautatu **Imágenes**. Hautatu nahi dituzun irudiak. Eta ukitu .

2 Ukitu **Imprimir**, eta, gero, hautatu **Bluetooth** edo **PictBridge**.

**IRADOKIZUNA**: Bluetooth bidez edo PictBridge-rekin bateragarria den inprimagailu batera konektatuta inprima dezakezu.

## Irudi bat mugitzea edo kopiatzea

Irudi bat telefonoaren memoriatik memoria-txartel batera eraman edo han kopia dezakezu, eta alderantziz. Funtzio hori baliagarria da bi memorietako bateko espazioa husteko, edo irudiak ez galtzeko.

1 Ukitu **Mis Cosas**, ENTRETENIMIENTO fitxan, hautatu **Imágenes**, eta ukitu .

2 Hautatu **Mover** edo **Copiar**.

3 Irudiak hautatu edo desautatu ditzakezu bata bestearen atzetik ukituta. Hautatu mugitu edo kopiatu nahi duzun irudia, eta ukitu **Copiar/Mover**.

## Soinuak

**Sonidos** menuak soinu-zerrenda bat du, eta hor sartzen dira deskargatutako soinuak, soinu lehenetsi batzuk eta ahots-grabazioak. Hortik soinuak administratu, bidali edo dei-tonu gisa ezar ditzakezu.

### Soinuak erabiltzea

1 Ukitu **Mis Cosas**, ENTRETENIMIENTO fitxan, eta hautatu Sonidos.

2 Hautatu nahi duzun soinua, eta berrespen-mezu bat agertuko da.

3 Ukitu **Sí**. Erreproduzitzen hasiko da.

4 Ukitu , eta hautatu Usar como.

5 Hautatu hauetako bat: **Tono llamada, Tono mensaje, Iniciar** eta **Apagar**.

## Bideoak

Vídeos menuan telefonoarekin deskargatutako eta grabatutako bideoen zerrenda agertzen da.

# Multimedia

## Bideoak ikustea

1 Ukitu **Mis Cosas**, ENTRETENIMIENTO fitxan, eta hautatu **Vídeos**.

2 Hautatu erreproduzitu nahi duzun bideoa.

## Bideo bat bidaltzea

1 Hautatu bideo bat.

2 Ukitu , eta, gero, **Enviar**, eta hautatu hauetako bat: **Mensaje, E-mail, Bluetooth**.

## Jokoak eta aplikazioak

Zure telefonoan joko eta aplikazio berriak instala ditzakezu, aisialdian jolasteko. ENTRETENIMIENTO fitxako **Juegos y aplicaciones** menuaren bidez ere sar zaitezke.

## Jokatzea

1 Ukitu **Juegos y aplicaciones**, ENTRETENIMIENTO fitxan.

2 Hautatu **Juegos**, eta, gero, ireki nahi duzun jokoa.

## Dokumentuak

**Mis cosas**-eko **Documentos** atalean ikus ditzakezu dokumentu-fitxategi guztiak. Handik, Excel, PowerPoint, Word, texto eta PDF fitxategiak ikus ditzakezu.

## Telefonora fitxategi bat transferitzea

Fitxategi bat ordenagailutik telefonora transferitzeko teknologiari erosoena da, ziur asko, Bluetootha. Almacenamiento masivo edo LG PC Suite ere erabil dezakezu ,sinkronizazio-kablearen bidez.

**Fitxategi bat Bluetooth bidez transferitzeko:**

1 Ziurtatu telefonoak eta ordenagailuak Bluetootha aktibatua dutela, eta elkarrengandik hurbil daudela.

2 Erabili ordenagailua, fitxategia Bluetooth bidez bidaltzeko.

3 Fitxategia bidalitakoan, telefonoan onartu behar duzu, Sí sakatuz.

4 Fitxategiak modu lehenetsian agertu behar luke **Mi carpeta**n, **Mis cosas**eko bigarren fitxan. Karpeta beteta badago, baliteke fitxategia ikusterik ez izatea.

## Beste zenbait

**Otros** menuak argazkiak, soinuak, bideoak, dokumentuak, jokoak edo aplikazioak ez diren fitxategien zerrenda bat du.

## Musika

LG GM360k musika-erreproduzitzaile integratua du, zure gustuko abesti guztiak entzun ditzazun. Musika-erreproduzitzailera sartzeko, ukitu **Música**, ENTRETENIMIENTO fitxan. Hortik hainbat karpetatara sar zaitezke:

**Recientes**: azkenaldian erreproduzitutako abestiak erreproduzitzen ditu.

> **OHARRA**: Baliteke musika-fitxategien copyrighta estatuko eta nazioarteko hitzarmen eta legeek babestuta egotea. Litekeena da baimena edo lizentzia behar izatea musika erreproduzitzeko edo kopiatzeko. Herrialde batzuetan, estatuko legeen arabera, debekatuta dago copyrightaz babestutako materialak kopiatzea. Fitxategia deskargatu edo kopiatu aurretik, eskatu informazioa dagokion herrialdean horrelako materialari buruz dagoen legeriari buruz.

**Todas las pistas**: telefonoaren abesti guztiak ditu, aurretik lehenespenez kargatutako musika izan ezik.

**Artistas**: artistaren arabera bilduman mugitzeko.

**Álbumes**: albumaren arabera bilduman mugitzeko.

**Géneros**: generoaren arabera bilduman mugitzeko.

**Listas reproducción**: sortu dituzun erreprodukzio-zerrenda guztiak biltzen ditu.

**Pistas aleatorias**: musika ausazko ordenan entzuteko.

## Telefonora musika transferitzea

Telefonora musika transferitzeko modurik errazenak Bluetootha eta sinkronizazio-kablea dira.
LG PC Suite ere erabil dezakezu.
Fitxategi bat Bluetooth bidez transferitzeko:

1 Egiaztatu Bluetootha aktibo dagoela bi gailuetan, eta elkarri lotuta daudela.

2 Hautatu musika-fitxategi bat beste gailuan, eta bidali Bluetooth bidez.

3 Fitxategia bidaltzeko prest badago, telefonoan onartu behar duzu, **Sí** ukituta.

4 Fitxategia hemen agertuko da: **Música >**

**Todas las pistas**.

## Abesti bat erreproduzitzea

1 Ukitu **Música**, ENTRETENIMIENTO fitxan.

2 Hautatu karpetetako bat eta erreproduzitu nahi duzun abestia.

3 Ukitu ⏸, abestia gelditzeko.

4 Ukitu ⏭, hurrengo abestira joateko.

5 Ukitu ⏮, aurreko abestira joateko.

6 Ukitu ↩, Música menura joateko. Behin baino gehiagotan uki daiteke, menura itzultzeko.

## Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

Erreprodukzio-zerrendak sor ditzakezu, **Listas reproducción** karpetatik abesti-sorta bat hautatuz.

1 Ukitu **Música**, ENTRETENIMIENTO fitxan.

2 Ukitu **Listas reproducción** eta **Añadir lista**, jarri erreprodukzio-zerrendaren izena eta ukitu **Guardar**.

3 **Todas las pistas** karpetan telefonoaren abesti guztiak bistaratuko dira. Ukitu erreprodukzio-zerrendan gorde nahi dituzun abesti guztiak; izenen ondoan egiaztatze-marka agertuko da.

4 Ukitu **Completado**.

## FM irratia

FM irratiaren funtzioa du LGren GM360 telefonoak, eta zure kate gustukoenak sintonizatu eta mugitzen ari zarela entzuteko aukera ematen dizu. Entzungailuak konektatu behar dituzu irratia entzuteko.

## Irrati-kateak bilatzea

Telefonoan kateak sintoniza ditzakezu, eskuz edo automatikoki bilatuta. Berariazko kanal-zenbakietan gordeko dira, berriro sintonizatu behar ez izateko. Lehenik eta behin, entzungailua telefonora konektatu behar duzu, antena gisa dihardu eta.

**Irrati-kateak automatikoki sintonizatzeko**:

1 Ukitu **Radio FM,** ENTRETENIMIENTO fitxan, eta, gero, ▣.

2 Ukitu **Exploración automática.**
Berrespen-mezu bat agertuko da. Hautatu **Sí**, eta, gero, automatikoki esleituko zaizkie aurkitutako kateak telefonoaren kanalei.

**OHARRA**: eskuz ere sintoniza daiteke kate bat, pantailaren erdi aldean dauden ◀ eta ▶ erabilita. ◀ eta ▶ luze sakatuta, kateak automatikoki aurkituko ditu.

## Kateak berrezartzea

1 Ukitu **Radio FM,** ENTRETENIMIENTO fitxan, eta, gero, ▣.

2 Hautatu Reiniciar el canal kanala berrezartzeko, eta Reiniciar todos los canales guztiak berrezartzeko. Kanal guztiak hasierako maiztasunera itzuliko dira (87,5 Mhz)

# Antolatzailea

## Egutegiari gertaerak gehitzea

1 Ukitu **Organizador**, UTILIDADES fitxan, eta hautatu **Calendario**.

2 Aukeratu gertaera zer datatan gehitu nahi duzun.

3 Ukitu , eta, ondoren, **Añadir evento**.

4 Ukitu **Categoría**, eta, ondoren, hautatu **Cita**, **Aniversario** edo **Cumpleaños**.

5 Idatzi gaia **(Asunto)**.

6 Egiaztatu eta zehaztu zer egun eta ordutan nahi duzun gertaera hastea. Hitzordu eta urteurrenetarako, adierazi, beheko data- eta ordu-laukietan zer egunetan eta zer ordutan amaitzen den gertaera. Hitzordu bat bada, jarri non den.

7 Zehaztu **Alarma** eta **Repetición**.

8 Hautatu **Guardar** eta egutegian gordeko da gertaera. Kurtsore karratu batek gertaerei dagozkien egunak markatuko ditu, eta gertaera hasten den orduan txirrin batek joko du, zure denbora antolatu ahal izateko.

## Zeregin-zerrendari elementu bat gehitzea

1 Ukitu **Organizador**, UTILIDADES fitxan.

2 Hautatu **Tareas**, eta ukitu **Añadir tarea**.

3 Definitu zereginaren data, gehitu oharrak eta hautatu lehentasun-maila: **Alto, Medio** edo **Bajo**.

4 Zereginena gordetzeko, hautatu **Guardar**.

## Data-bilatzailea erabiltzea

Data-bilatzailea tresna erabilgarria da; etorkizuneko data kalkulatzen laguntzen du. Adibidez, 2007/10/10etik zenbatzen hasita, 60 egun beteko dira 2007/12/09an.

1 Ukitu **Organizador**, UTILIDADES fitxan.

2 Hautatu **Buscador de fechas**.

3 Definitu data **Desde** fitxan.

4 **Después** fitxan, zehaztu egun-kopurua.

5 **Fecha límite** (muga-data) beherago azalduko da.

## Ohar bat gehitzea

1 Ukitu **Notas**, UTILIDADES fitxan.

2 Ukitu **Agregar nota**.

3 Idatzi oharra, eta aukeratu **Guardar**.

4 Zure oharra **Notas** aplikazioaren pantailan agertuko da.

## Alarma bat ezartzea

1 Ukitu **Alarma**, UTILIDADES fitxan. Widget-eko alarmak lehenespenez agertu behar luke zerrendan, eta ezin da ezabatu.

2 Ukitu **Añadir alarma**.

3 Definitu alarmak zer ordutan jotzea nahi duzun, **Hora** eremuan.

4 Hautatu nola nahi duzun alarma errepikatzea, hemen: **Repetir: Sin repetición, Diariamente, Lun – Vie, Lun – Sáb, Sáb – Dom, Excepto festivo edo Seleccionar día.** Ikonoek aukeratutako asteguna adierazten dute.

5 Hautatu **Modo de alarma**, nahi den alarma-mota hautatzeko.

6 Hautatu **Timbre de alarma**, eta karpetako soinu bat. Soinuak entzuteko, ukitu soinu hori, eta, ondoren, .

7 Gehitu alarmarako ohar bat, **Notas** koadroan.

8 Azkenik, zein maiztasunekin errepikatuko den zehaztu dezakezu: 5, 10, 20, 30 minutu, 1 ordu edo desaktibatuta.

9 Behin alarma zehaztuta, ukitu **Guardar**.

**OHARRA**: 5 alarma ere konfigura ditzakezu, widget-eko **alarma** barne.

**IRADOKIZUNA**: Jarri etengailua **Activado/Desactivado** gisa, alarmaren arabera, berriro ezartzeko.

## Marrazki-panelarekin ohar bat gehitzea

1 Ukitu **Panel de dibujo**, UTILIDADES fitxan.

2 Ukitu **Añadir dibujos**.

3 Marraztu zure oharra ukipen-pantailaren LCDan, eta, ondoren, ukitu .

4 Ukitu **Sí**; oharra, gero, **Panel de dibujo** aplikazioan agertuko da.

# Antolatzailea

## Grabagailua

Erabili ahots-grabagailua, ahots- edo bestelako soinu-fitxategiak grabatzeko.

Ukitu **Grabadora de voz**, UTILIDADES fitxan, eta hautatu ; gero, ukitu **Ajustes**, doikuntzak aldatzeko:

**Duración**: grabazioaren iraupena ezartzeko. Hautatu hauetako bat: **Sin límite, Tamaño MMS** edo **1 min**.

**Calidad**: soinuaren kalitatea hauta dezakezu. Hautatu hauetako bat: **Super fino, Fino** edo **General**.

**Memoria en uso**: hautatu non gorde nahi dituzun soinu-fitxategiak.

Hautatu kanpoko memoria edo telefonoaren memoria.

## Soinua edo ahotsa grabatzea

1 Hautatu grabazioa hasteko.

2 Ukitu grabazioa eteteko.

3 Hautatu grabazioa amaitzeko.

4 Hautatu grabazioa erreproduzitzeko.

## Kalkulagailua erabiltzea

1 Ukitu **Extras**, UTILIDADES fitxan.

2 Hautatu **Calculadora**.

3 Ukitu zenbaki-teklak, zenbakiak adierazteko.

4 Kalkulu sinpleak egiteko, ukitu behar duzun funtzioa (+, -, *, /), eta, ondoren, =.

5 Kalkulu konplexuagoak egiteko, ukitu , eta hautatu hauetako bat: **sin, cos, tan, log, ln, exp, sqrt, deg** edo **rad**.

## Unitate bat bihurtzea

1 Ukitu **Extras**, UTILIDADES fitxan.

2 Hautatu **Conversor unidades**.

3 Hautatu zer bihurtu nahi duzun: **Moneda, Área, Longitud, Peso, Temperatura, Volumen** edo **Velocidad**.

4 Puntu horretan, unitatea hautatu behar duzu, bai eta zer bihurketa zer baliotatik egin nahi duzun ere. Ondoren, zer unitatetara bihurtu nahi duzun hautatu behar duzu.

5 Dagokion balioa pantailan agertuko da.

## Munduko erlojuari hiri bat gehitzea

1 Ukitu **Extras**, UTILIDADES fitxan.

2 Hautatu **Reloj mundial**.

3 Ukitu , eta, ondoren, **Nueva ciudad**.

4 Ibili munduan zehar, ukitu nahi duzun eremua, eta hautatu herria mapan.

5 Bestela, idatzi nahi duzun herriaren izena bilaketa-eremuan.

## Kronometroa erabiltzea

1 Ukitu **Extras**, UTILIDADES fitxan.

2 Hautatu **Cronómetro**.

3 Ukitu **Inicio** pantailaren beheko aldean, tenporizadorea aktibatzeko.

4 Ukitu **Vuelta**, bira baten denbora gordetzeko.

5 Hautatu **Parar**, tenporizadorea geldiarazteko.

6 Ukitu **Reiniciar**, kronometroa gelditu duzun unean berrabiarazteko, edo ukitu **Reiniciar**, berriro kronometratzen hasteko.

# PC Sync

Ordenagailua telefonoarekin sinkroniza dezakezu, informazio eta data garrantzitsu guztiak bat datozela ziurtatzeko. Fitxategien segurtasun-kopia bat ere egin dezakezu, lasai geratzeko.

## LG PC Suite ordenagailuan instalatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu eta hautatu **Conexión**, AJUSTES fitxan.
2. Hautatu **Modo de conexión USB**, eta ukitu **PC Suite**.
3. Konektatu gailua ordenagailura USB-kablea erabilita, eta itxaron pixka bat. Instalazio-gidaren mezua agertuko da.
4. Jarraitu pantailako jarraibideei, LG PC Suite Installer-en laguntzailea osatzeko.
5. Instalazioa osatutakoan, LG PC Suite-ren ikonoa mahaigainean agertuko da.

## Telefonoa eta PCa konektatzea

1. Hasierako pantailan, sakatu eta hautatu **Conexión**, AJUSTES fitxan.
2. Ukitu **Modo de conexión USB**.
3. Ukitu **PC Suite**.
4. Konektatu gailua ordenagailura USB-kablea erabilita, eta itxaron pixka bat. PC Suite automatikoki jartzen da martxan.

## Telefonoaren informazioaren segurtasun-kopia egitea eta leheneratzea

1. Konektatu telefonoa PCra, lehen deskribatu bezala.
2. Sakatu **Copia de seguridad** eta **Restaurar**, Herramientas atalean.
3. Markatu segurtasun-kopia zer edukitatik egin edo berreskuratu nahi duzun.
   Hautatu zer kokalekutan gorde nahi duzun informazioaren segurtasun-kopia edo informazioa nondik berreskuratu nahi duzun. Sakatu **Inicio** ikonoa.
4. Informazioaren segurtasun-kopia bat egingo edo berreskuratuko da.

## Telefonoaren fitxategiak ikustea PCan

1. Konektatu telefonoa PCra, lehen deskribatu bezala.
2. Sakatu **Fotos** ikonoa.
3. Telefonoaren irudi-fitxategiak PCan kargatuko dira. Telefonoaren memorian sakatzean bistaratuko dira.
4. Sakatu **Vídeos** ikonoa.
5. Telefonoaren bideo-fitxategiak PCan kargatuko dira. Telefonoaren memorian sakatzean bistaratuko dira.

**IRADOKIZUNA**: telefonoaren edukiak PCan bistaratzea lagungarria da fitxategiak eta dokumentuak antolatzeko eta behar ez duzun edukia kentzeko.

## Kontaktuak sinkronizatzea

1. Konektatu telefonoa PCra.
2. Sakatu **Contactos** ikonoa.
3. Zure PCak telefonoan gordetako kontaktu guztiak inportatu eta erakutsiko ditu. (Sakatu Sincronizar contactos kontaktuak telefonoan kargatzeko)
4. Sakatu Archivo, hautatu **Exportar**. Puntu horretan, kontaktuak non gorde hauta dezakezu.

## Mezuak sinkronizatzea

1. Konektatu telefonoa PCra.
2. Sakatu **Mensajes** ikonoa.
3. Telefonoko mezu guztiak karpetatan bistaratuko dira pantailan.
4. Sakatu zutabeen izenburua mezuak antolatzeko, hauen arabera: **Remitente, Contenido** eta **Fecha de recepción**.

## Telefonoa erabiltzea musika sinkronizatzeko gailu gisa

Musika sinkronizatzeko gailu gisa erabil daiteke telefonoa, eta, hala, musika-fitxategiak bakarrik sinkronizatuko ditu.

Windows Media Player 10/11 erabiliz sinkroniza daiteke musika, eta bateragarria da bai telefonoaren memoriarekin, bai kanpoko memoria-txartel batekin.

1. Deskonektatu telefonoa PCtik.
2. Hasierako pantailan, sakatu eta hautatu Conexión, AJUSTES fitxan.
3. Ukitu **Modo de conexión USB**.
4. Ukitu **Sincronizar**.
5. Konektatu telefonoa PCra. Telefonoan **Conectado** bistaratuko da.

# Sarea

## Sarera sartzea

1 Ukitu **Internet**, UTILIDADES fitxan.

2 Sartu zuzenean nabigatzailearen hasierako orrira, **Inicio** hautatuta. Halaber, **Introducir dirección** hauta dezakezu, eta nahi duzun URL helbidea idatzi. Ondoren, sakatu **Conectar**.

**OHARRA**: zerbitzu horretara konektatzeak eta edukia deskargatzeak kostu gehigarria dute. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

## Gogokoak gehitzea eta haietara sartzea

Webgune gogokoetara jotzeko sarbide sinple eta bizkorra izateko, markatzaileak gehitu eta web-orriak gorde ditzakezu.

1 Ukitu **Internet**, UTILIDADES fitxan.

2 Hautatu **Favoritos**. Gogokoen zerrenda (Favoritos) agertuko da pantailan.

3 Gogoko berri bat gehitzeko, ukitu **Añadir favorito**. Idatzi markatzailerako izen bat, eta, ondoren, URL helbidea dagokion eremuan.

4 Ukitu **Guardar**. Gogokoen zerrendan agertuko da gogokoa.

5 Gogoko horretara sartzeko, ukitu gogokoaren alboan dagoen **Conectar** ikonoa edo ukitu gogokoaren izenburua, eta, gero, ukitu Conectar. Gogokora konektatuko da.

## RRS irakurgailua erabiltzea

Web-iturrien formatu-multzo bat da RSS (Really Simple Syndication), eta maiz eguneratzen diren edukiak —hala nola blogetarako sarrerak, albisteen titularrak eta podcast-ak— argitaratzeko erabiltzen da. Lotutako webgune baten edukiaren laburpena edo testu osoa izaten du RSS dokumentu batek (iturria, web-iturria edo kanala esaten zaio). Beren webgune gogokoenen edukira automatikoki sartzeko aukera ematen die RSSk erabiltzaileei. Hala, ez daukate eskuz sartu beharrik. Erabiltzaileak, iturri batean harpidetzeko, iturriaren esteka sartu behar du irakurgailuan, edo, bestela, harpidetze-prozesua abiarazteko nabigatzailearen RSSaren ikonoa sakatu. Aldian behin, erabiltzaileak harpidetutako iturrien eduki-eguneratzeak begiratzen eta eguneratzen ditu irakurgailuak.



## Orri bat gordetzea

1 Sartu zuk nahi duzun web-orrira, gorago deskribatu den bezala.

2 Ukitu [ikonoa], eta hautatu **Guardar esta página**.

3 Idatzi erraz ezagutzeko moduko izen bat orriarentzat.

4 Ukitu **Guardar**.

## Gordetako web-orri batera sartzea

Ukitu **Internet**, UTILIDADES fitxan. Eta hautatu **Páginas guardadas**. Gordetako orriak kontsultatu ahal izango dituzu.

## Nabigatzailearen historia ikustea

Ukitu **Internet**, UTILIDADES fitxan. Eta hautatu **Historial**.

## Web-nabigatzailearen doikuntzak aldatzea

Ukitu **Internet**, UTILIDADES fitxan. Eta hautatu **Ajustes**.

Aukera hauek edita ditzakezu: **Perfiles, Apariencia, Caché, Cookies** edo **Seguridad**.

## Telefonoa modem gisa erabiltzea

GM360 PC baterako modem gisa ere erabil daiteke; zure posta elektronikorako eta Interneterako sarbidea emango dizu kable bidez konektatu ezin zarenean ere. USB-kablea edo Bluetootha erabil dezakezu.

**USB-kablea erabiltzen baduzu:**

1 Egiaztatu LG PC Suite instalatua duzula zure PCan.

2 Konektatu GM360 telefonoa ordenagailura USB-kablearekin, lehen deskribatu bezala, eta hasieratu LG PC Suite softwarea.

3 Egin klik zure PCko InternetKit aukeran. Gero, sakatu Añadir, eta hautatu Módem.

4 Idatzi Intenetera konekta daitekeen profilaren izena, eta gorde ezarpen horiek.

# Sarea

**5** Sortutako profila PCaren pantailan bistaratuko da. Hautatu, eta, ondoren, sakatu **Conectar**.

Horrela, ekipoa GM360 telefonoaren bidez konektatuko da.

**OHARRA**: LG PC Suite erabiliz sinkronizatzeari buruzko informazio gehiago lortzeko.

**Bluetootha erabiltzen baduzu**:

1. Egiaztatu Bluetootha **Activado** eta **Visible** dagoela, bai PCan, bai GM360n.
2. Lotu PCa eta GM360 konexioa ezartzean pasahitza eskatzeko moduan.
3. Erabili **konexiorako laguntzailea** LG PC Suiten, Bluetooth-konexio aktibo bat sortzeko.
4. PCan, egin klik **Internet Kit**-en. Gero, sakatu **Nuevo** botoia.
5. Aukeratu **Módem USB móvil LG** eta hautatu **OK**. Pantailan bistaratuko da hori.
6. Idatzi Intenetera konekta daitekeen profilaren izena, eta gorde ezarpen horiek.
7. Sortutako profila PCaren pantailan bistaratuko da. Hautatu, eta, ondoren, sakatu **Conectar**.

Horrela, ekipoa GM360 telefonoaren bidez konektatuko da.

## Googlera sartzea

Menu hau erabiliz, Google zerbitzua erabil dezakezu. Google zerbitzuak hauek erabiltzeko aukera ematen dio erabiltzaileari: **Buscar, Correo, Usuario de blog**.



# Doikuntzak

## Profilak pertsonalizatzea

Hasierako pantailan, berehala alda dezakezu zure profila.

Profil-doikuntza oro pertsonaliza dezakezu doikuntzen menuaren bidez.

1. Ukitu **Perfiles**, AJUSTES fitxan.
2. Hautatu editatu nahi duzun profila.
3. Zerrendako alerta-soinu eta aukera guztiak alda ditzakezu, baita **Tono llamada** eta beste doikuntza batzuk ere: **Volumen, Tono mensaje** eta abar.

## Pantailaren doikuntzak aldatzea

Ukitu **Ajustes de pantalla**, AJUSTES fitxan.

**Pantailaren doikuntzak**

**Fondo de pantalla**: hasierako pantailaren edo blokeo-pantailaren gaia hautatzeko.

**Plantilla de inicio del widget**: hautatu hasierako pantaila bat.

**Livesquare**: ukitu **Guía Livesquare**, funtzioak egiaztatzeko.

**Tema**: hautatu zuria edo beltza (marrazki bizidunen estiloko erabiltzaile-interfazea).

**Menú principal**: hautatu menu nagusiaren estiloa, **Zigzag, Continuo** edo **Pantalla a pantalla**.

**Pantalla de bloqueo**: hautatu desblokeatzeko modua.

**Movimiento en pantalla**: hautatu mugimendu-mota blokeo-pantailan.

**Marcación**: zenbakiaren kolorea doitzeko.

**Fuente**: letra-tamaina doitzeko. Lau aukera daude: **Pequeño, Medio, Grande eta Muy grande**.

**OHARRA**: hondoko argia zenbat eta denbora gehiagoan egon aktibo, bateriaren energia gehiago xahutuko da. Hori dela eta, maizago kargatu behar izango duzu telefonoa.

**Brillo**: pantailaren distira doitzeko.

**Saludo inicial**: hautatu **Activado** edo **Desactivado** eta zehaztu hasierako agur bat testu-koadroan.

# Doikuntzak

**Inicio/Apagado**: hasiera/amaiera pantailaren gaia hautatzeko.

## Telefonoaren doikuntzak aldatzea

Gozatu GM360 telefonoa zure estilora egokitzeak ematen dizun askatasunaz.

Ukitu **Ajustes del teléfono** AJUSTES fitxan, eta, gero, hautatu beheko zerrendan.

**Ajustes del teléfono**

**Fecha y Hora**: aldatu data eta ordua, edo aukeratu ordua automatikoki eguneratzea bidaia bat egiten duzunean edo udako ordutegira aldatzen denean.

**Ahorro de energía**: aukera ematen du Activado, Desactivado eta Sólo noche energia aurrezteko doikuntzak txandakatzeko.

**Idiomas**: GM360 gailuaren pantailako hizkuntza aldatzeko aukera ematen du.

**Bloqueo teclado**: aukera ematen du teklatua automatikoki blokeatzeko, hasierako pantailan dagoenean.

**Seguridad**: aukera ematen du segurtasun-doikuntzak konfiguratzeko, PIN kodeak eta telefonoaren blokeoa barne.

**Info. memoria**: ikus **Memoria-administratzailea** erabiltzea, informazio gehiago eskuratzeko.

**Restablecer ajustes**: doikuntza guztiak aurrez ezarritako balioetan jartzeko balio du.

**Información**: hautatu **Ayuda**, GM360 gailuari buruzko informazioa teknikoa ikusteko. Gainera, softwarea eguneratu dezakezu telefonoaren informazioarekin.

## Memoria-administratzailea erabiltzea

GM360 telefonoak hiru memoria ditu: telefonoa, SIM txartela eta kanpoko memoria-txartela.

Zenbat memoria erabiliden eta zenbat toki dagoen erabilgarri jakiteko, memoriaren administratzailea erabil dezakezu.

Ukitu **Ajustes del teléfono** AJUSTES fitxan, eta, gero, hautatu **Info. memoria**.

**Memoria común del teléfono**: irudiak, soinuak, bideoak, MMSak, mezu elektronikoak, Java aplikazioak eta abar gordetzeko GM360 telefonoak memorian zenbat toki duen ikusteko aukera ematen du.

**Memoria reservada del teléfono**: ikus zure telefonoak memorian zenbateko tokia duen SMSak, kontaktuak, egutegia, zeregin-zerrenda, oharrak, alarma, deien historia, gogokoenak eta beste zenbait elementu gordetzeko.

**Memoria de la tarjeta**: ikusi zure SIM txartelaren memorian zenbateko tokia dagoen.

**Kanpoko memoria**: aukera ematen du kanpoko memoria-txartelean zenbateko tokia dagoen ikusteko (bereiz erosi beharko duzu, agian).

**Ajuste de almacenamiento principal**: gogoko elementuak telefonoaren memorian edo kanpoko memorian gordeko diren aukeratu dezakezu.

## Konektagarritasuneko doikuntzak aldatzea

Sare-operadoreak konfiguratuak ditu konektagarritasun-doikuntzak, zure telefono berriaz berehala goza dezazun. Doikuntza horiek aldatzeko, erabili menu hau. Ukitu **Conexión**, AJUSTES fitxan.

**Red**

**Seleccionar red**: Automático hautatu baduzu, GM360 telefonoak automatikoki bilatuko du sarea, eta terminala han erregistratuko du. Zerbitzu eta kalitate hobea lortzeko aukera hau erabiltzea aholkatzen da. Manual hautatuz gero, une honetan eskuragarri dauden sare guztiak bistaratzen dira, eta horietako bat hauta dezakezu erregistratzeko.

**Listas preferidas**: konektatu nahi duzun gogoko sare bat gehitu dezakezu. Sarea automatikoki bilatuz gero, hautatu bat sare-zerrendan, eta, bat ere ez badago, gehitu bat eskuz.

**Perfiles de Internet**: menu honek Interneteko profilak erakusten ditu. Herrialdearen arabera lehenespenez ezarri diren konfigurazioak ezin dira ez editatu, ez ezabatu.

**Puntos de acceso**: sare-operadoreak gorde du, dagoeneko, informazio hori. Menu horrekin, sarbide-puntu berriak erantsi ditzakezu.

**GPRS**: hautatu zer unetan konektatu behar duen gailuak sarera, datu-paketeak eskuratzeko.

# Doikuntzak

**USB**: hautatu aukeran dauden datu-zerbitzuetako bat, eta sinkronizatu GM360 modeloa, LGPC erabiliz, telefonotik fitxategiak kopiatzeko. Ikus PCarekin nola sinkronizatu, sinkronizazioari buruz informazio gehiago izateko.

Musika sinkronizatzeko funtzioa Windows Media Player-ekin erabiltzen baduzu, hautatu Sincronizar menu honetan. Sincronizar aukera musika-edukietarako da bakarrik.

**Ajustes de Java**: Java-ren aukerak konfiguratzeko da.

**Streaming**: Java-ren aukerak konfiguratzeko da.

## Fitxategiak Bluetooth bidez bidaltzea eta jasotzea

**Fitxategi bat bidaltzeko**:

1 Ireki bidali nahi duzun fitxategia (normalean musika-, bideo- edo argazki-fitxategiak bidaliko dituzu).

2 Hautatu **Enviar**.
Hautatu **Bluetooth**.

3 **Bluetooth**-gailua dagoeneko lotua baduzu, GM360k ez du beste **Bluetooth**-gailurik bilatuko automatikoki. Lotua ez badago, GM360k bere irismen-eremuko gailuak bilatuko ditu, **Bluetootha** aktibatua dutenak.

4 Hautatu zein gailutara bidali nahi duzun fitxategia.

5 Fitxategia bidali egingo da.

**IRADOKIZUNA**: Begiratu aurrerapen-barran, fitxategia bidaltzen dela ziurtatzeko.

**Fitxategi bat jasotzeko**:

1 Fitxategiak jasotzeko, Bluetoothak **Activado** eta **Visible** moduan egon behar du.
Ikus **Bluetootharen doikuntzak aldatzea** (ondoren agertzen da) informazio gehiago eskuratzeko.

2 Mezu batek bidaltzailearen fitxategia onartzen duzun galdetuko dizu. Ukitu **Sí**, fitxategia jasotzeko.

3 Fitxategia non gorde den ikusiko duzu. Irudi-fitxategien kasuan, bi aukera dituzu: **Ver** edo **Usar como tapiz**. Normalean, fitxategiak **Mis cosas**-en dagokien karpetan gordeko dira.



## Bluetootharen doikuntzak aldatzea

Ukitu **Bluetooth** AJUSTES fitxan, eta hautatu  eta **Ajustes**.

**Aldaketak egiteko**:

**Visibilidad dispositivo**: zenbait aukera eskaintzen ditu: **Visible, Oculto** edo **Visible 1 minuto**.

**Nombre dispositivo**: GM360rentzat izen bat sartzeko. **Servicios admitidos**: hautatu Bluetootha beste zerbitzu batzuekin nola erabili.

**Modo SIM remoto**: aktibatu edo desaktibatzeko.

**Mi dirección**: Bluetooth-gailuaren helbidea ikusteko.

## Telefonoa beste Bluetooth-gailu bati lotzea

GM360 modeloa beste gailu bati lotuz gero, pasahitz baten bidez babestutako konexioa konfiguratu ahal izango duzu.

1 Egiaztatu Bluetooth-konexioa

**Activada** eta **Visible** moduan dagoela. **Ajustes** menuan, ikusgaitasuna alda dezakezu.

2 Ukitu **Buscar**.

3 GM360k beste gailu batzuk bilatuko ditu. Bilaketa amaitutakoan, **Actualizar** aukera bistaratuko da pantailan.

4 Hautatu zein gailurekin lotu nahi duzun, eta idatzi pasahitza; ondoren, ukitu **OK**.

5 Telefonoa beste gailuarekin lotuko da; gailu horretan pasahitz bera idatzi behar da.

6 Pasahitz bidez babestutako Bluetooth-konexioa prest egongo da.

## Bluetooth-entzungailuak erabiltzea

1 Egiaztatu Bluetootha **Activado** eta **Visible** moduan dagoela.

2 Bete entzungailuekin batera zetozen jarraibideak, gailuak lotzeko jarraibideak.

3 Ukitu **Preguntar antes de conectar** edo **Conectar siempre**, eta, ondoren, Conectar ahora funtzioan, ukitu **Sí**. GM360 entzungailuen profilera aldatuko da automatikoki.

# Doikuntzak

## Softwarea eguneratzea

### LG telefono mugikorren softwarea eguneratzeko programa

Programa hau instalatzeari eta erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, sartu http:// update. lgmobile.com webgunean. Funtzio honi esker, softwarea azken bertsiora eguneratu daiteke, azkar eta modu praktikoan, Internet bidez, bezeroarentzako arreta zerbitzura jo beharrik izan gabe. Telefono mugikorraren softwarea eguneratzeko programa lanean ari den bitartean, arreta jarri behar dio erabiltzaileak, harik eta prozesua erabat amaitzen den arte. Ezer egin aurretik, ziurtatu jarraibide eta ohar guztiak ulertzen dituzula. Eguneratzen den bitartean datuak transferitzeko USB-kablea edo bateria kenduz gero, kalte egin diezaiokezu telefono mugikorrari. Fabrikatzaileak ez du bere gain hartzen eguneratze-prozesuan izandako ezein datu-galera; beraz, aurrez informazio garrantzitsuaren kopia bat egitea aholkatzen dugu, zure segurtasunerako.



# Osagarriak

GM360 telefonoarekin batera, osagarri hauek ematen dira:

**Kargagailua**



**Datu-kablea**



**Bateria**



**Entzungailu estereofonikoak**



**OHARRA:**
- Erabili beti LGren jatorrizko osagarriak.
- Hori egiten ez baduzu, bermea bertan behera gera daiteke.
- Osagarriak desberdinak izan daitezke eskualdeen arabera. Mesedez, galdetu zure konpainiari edo tokiko agenteari informazio gehiago behar izanez gero.

# Datu teknikoak

**Orokorra**

Produktuaren izena: GM360

Sistema: GSM 850 / E-GSM 900 / DCS 1800 / PCS 1900

**Giro-tenperaturak**

Max.: +55 °C (deskargatzen)

+45 °C (kargatzen)

Min: -10 °C

# Declaración de conformidad

LG Electronics

**Datos de los proveedores**

Nombre

LG Electronics Inc

Dirección

LG Twin Tower 20,Yeouido-dong, Yeongdeungpo-gu Seoul, Korea 150-721

**Información del producto**

Nombre del producto

GSM 850 / E-GSM 900 / DCS 1800 / PCS 1900 Quad Band Terminal Equipment

Nombre del modelo

GM360

Marca

LG

CE 0168

**Estándares aplicables**

R&TTE Directive 1999/5/EC

EN 301 489-01 v1.8.1 / EN 301 489-07 v1.3.1 / EN 301 489-17 v.1.3.2
EN 300 328 V 1.7.1
EN 60950-1 : 2001
EN 50360:2001/EN62209-1:2006
EN 301 511 V9.0.2

**Información adicional**

La conformidad con los estándares anteriores ha sido verificada por el siguiente organismo de aprobación (BABT)

BABT, Forsyth House, Churchfield Road, Walton-on-Thames, Surrey, KT12 2TD, United Kingdom
Notified Body Identification Number : 0168

**Declaración de conformidad**

Declaro por la presente y bajo nuestra sola responsabilidad que el producto mencionado anteriormente y al que hace referencia esta declaración cumple con los estándares y las regulaciones anteriormente relacionados.

LG Electronics Logistics and Services B.V.
Veluwezoom 15, 1327 AE Almere, The Netherlands

Nombre

Seung Hyoun, Ji / Director

Fecha de emisión

30. MAR. 2010

Firma del representante

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

Irakurri jarraibide erraz hauek. Jarraibide hauei jaramonik ez egitea arriskutsua edo legez kanpokoa izan daiteke.

## Irrati-maiztasuneko energiarekiko esposizioa

Irrati-uhinen eraginpean egoteari eta SARi (Specific Absorption Rate, absortzio espezifikoaren tasa) buruzko informazioa GM360 telefono mugikorraren diseinuak betetzen ditu irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion segurtasun-araudiak. Pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzten jarraibide zientifikoetan oinarritzen dira arau horiek.

- Irrati-uhinekiko esposizioaren jarraibideen neurketa-unitatea absortzio espezifikoaren tasa edo SAR da. Telefonoan erabiltzen diren frekuentzia-banda guztietan ziurtatutako potentzia-maila altuenean transmititzen ari dela egiten zaizkio SARen probak, metodo estandarra erabiliz.
- LG telefono-modelo batetik bestera SARen mailan aldea izan badaiteke ere, irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion direktiba arrantzitsuetara egokitzeko moduan diseinatu dira telefono guztiak.
- ICNIRP (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection) Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak gomendatzen du SARen balio-muga hau izatea: 2 W/kg, ehunaren hamar (10) gramoko.
- Telefono-modelo hau belarrian erabiltzeko erregistratu den SARen mailarik altuena 1,33 W/kg (10 g) da, eta gorputzaren kontra garraiatzeko baliorik altuena, berriz, 1,31 W/kg (10 g).
- IEEE (Institute of Electrical and Electronics Engineers) Ingeniari Elektrikoen eta Elektronikoen Institutuak gomendatutako SARen muga-balioak oinarri hartu dituzten herrialdeetan/eskualdeetan bizi direnentzako SAR-datuei buruzko informazioa: 1,6 W/kg ehun gramo bakoitzeko (1)





## Produktua zaintzea eta mantentze-lanak

⚠ **OHARRA**: SMS bati irudi, bideo edo soinu bat gehitzen badiozu, MMS bihurtzen da automatikoki, eta horri dagokion kostua kobratuko zaizu.

- Ez desmuntatu gailua. Konpondu behar bada, eraman gaitutako zerbitzu tekniko batera.
- Ekipoa tresna elektrikoetatik (telebista, irratia edota ordenagailu pertsonala) urrun eduki.
- Ez utzi ekipoa leku beroetan (erradiadore edo labeen ondoan).
- Ez dadila eror.
- Ez utzi telefonoa bibrazio mekanikoen mende. Ez kolpatu.
- Itzali telefonoa araudi bereziek hala eskatzen duten lekuetan. Adibidez, ez erabili telefonoa ospitaleetan, tresna mediko sentikorrei eragin baitiezaieke.
- Telefonoa kargatzen ari denean, ez ukitu telefonoa eskuak bustiak badituzu. Deskarga elektrikoa jasan eta telefonoa honda dezakezu.
- Ez kargatu telefonoa material sukoia hurbil badago; berotu, eta sute bat eragin dezake.
- Erabili zapi lehor bat unitatearen kanpoko aldea garbitzeko (ez erabili bentzenorik, disolbatzailerik, alkoholik edo antzeko disolbatzailerik).
- Ez kargatu telefonoa gainazal barrubigunen gainean.
- Behar bezala aireztatutako eremuetan kargatu behar da telefonoa.
- Ez utzi telefonoa ke edo hauts asko dagoen tokietan.
- Urrundu telefonoa kreditu-txarteletatik edo garraio-txarteletatik, horien banda magnetikoaren informazioa honda baitezake.
- Ez kolpatu pantaila objektu puntadunekin, telefonoa honda daiteke.
- Babestu telefonoa uretatik eta hezetasunetik.
- Osagarriak kontuz erabili (entzungailuak, adibidez). Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

## Telefonoaren funtzionamendu eraginkorra

### Gailu elektronikoak

Telefono mugikor guztiek sor ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.

- Ez erabili telefonoa ekipo medikoetatik gertu baimenik eskatu gabe. Ez ipini telefonoa taupada-markagailuaren gainean, alegia, ez ipini alkandoraren poltsikoan, adibidez.
- Telefono mugikorrek zenbait audiofono honda ditzakete.
- Telebista, irrati, ordenagailu eta abarretan ere interferentzia txikiak eragin ditzakete.

## Bide-segurtasuna

Kasu egin gidatu bitartean telefono mugikorrak erabiltzeari buruzko legeei eta tokiko arauei.

- Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean.
- Gidatu arreta osoz.
- Erabili esku libreko gailu bat, baldin baduzu.
- Deiak egin edo deiei erantzun baino lehen, irten errepidetik eta aparkatu, errepidearen kondizioen arabera.
- Irrati-maiztasunak ibilgailuaren sistema elektroniko batzuetan eragin dezake (autoko irratia edo segurtasun-ekipoa).
- Ibilgailuak airbag-a badu, ez oztoporik jarri haririk gabeko ekipo eramangarriekin edo finkoekin. Horien ondorioz, airbag-ak huts egin dezake, eta larri zauritu zaitezke.
- Kalean zaudela musika entzuten baduzu, ziurtatu bolumenaren intentsitatea arrazoizkoa dela, zure inguruan gertatzen denaz jabetu zaitezen. Oso garrantzitsua da hori, batik bat, zirkulazio-bideetatik hurbil.

## Kalteak entzumenean

Bolumen altuko soinuak entzuten denbora askoz egonez gero, baliteke zure belarriek kalteak jasatea. Horregatik, telefonoa belarrietatik hurbil ez piztea eta itzaltzea gomendatzen dizugu. Horrez gain, musikaren eta deien bolumena arrazoizko mailan ezartzea gomendatzen dizugu.

## Beirazko piezak

Telefono mugikor guztiek sor ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.
Zure telefono mugikorraren pieza batzuk beirazkoak dira. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handi bat hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili zure telefonoa hornitzaile baimendu batek kristala ordeztu arte.

## Eraispenak

Ez erabili telefonoa eraispenak egiten diren bitartean. Errespetatu murrizketak eta jarraitu arauei.

## Lehergaiak egon litezkeen inguruak

- Ez erabili telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan.
- Ez erabili produktu kimiko edo erregaietatik hurbil.
- Ez garraiatu edo ez gorde lehergai, likido edo gas sukoirik telefono mugikorra eta haren osagarriak dauden ibilgailuko onpartimentuan.

## Hegazkinetan

Haririk gabeko gailuek interferentziak sor ditzakete hegazkinetan.

- Itzali telefono mugikorra hegazkinean sartu aurretik.
- Ez erabili lurrean tripulazioaren baimenik gabe.

## Haurrak

Ez utzi telefonoa haur txikien eskueran. Toki seguruetan gorde. Pieza txikiak ditu telefonoak, eta, haiek irensten badituzte, itotzeko arriskua dute.

## Larrialdi-deiak

Beharbada, larrialdi-deiak ezingo dira sare mugikor guztietan egin. Beraz, ezin duzu telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko. Galdetu zure inguruko zerbitzuen hornitzaileari.

## Bateriari buruzko informazioa eta mantentze-lanak

- Bateriak ez du zertan erabat deskargatuta egon berriz kargatzeko. Beste bateria-sistemetan ez bezala, ez dago bateriaren errendimenduari kalte egin diezaiokeen memoria-efekturik.
- LGren bateriak eta kargagailuak baino ez erabili. Bateriaren bizitza ahalik eta gehiena luzatzeko diseinatu dira LGren kargagailuak.

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- Ez desmuntatu bateria, eta ez egin zirkuitulaburrik.
- Eduki garbi bateriaren kontaktu metalikoak.
- Aldatu bateria, behar bezala ez dabilenean. Bateria ehunka aldiz karga daiteke hondatu baino lehen.
- Aspaldian erabili ez baduzu, kargatu egin behar duzu bateria, funtzionaltasuna ahalik eta handiena izan dadin.
- Ez jarri bateria-kargagailua eguzkitan, eta ez erabili ingurune hezeetan (komunean, adibidez).
- Ez utzi bateria toki hotz edo beroetan, errendimendua txikitu daiteke.
- Bateria desegoki batekin ordeztuz gero, lehertzeko arriskua dago.
- Bete fabrikatzailearen jarraibideak bateriak ezabatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.
- Bateria ordeztu behar baduzu, eraman hornitzailearengana edo hurbilen duzun LG Electronics-en zerbitzu-puntu baimendura, laguntza jasotzeko.
- Desentxufatu beti kargagailua korronte-hartunetik telefonoa kargatu ondoren, kargagailuak energia alferrik kontsumi ez dezan.
- Sarearen konfigurazioaren, erabilera-ereduen, bateria-motaren eta ingurumen-kondizioen araberakoa da bateriaren iraupena.



LG
Life's Good

# BERME-TXARTELA

1.-Gorde txartel hau –behar bezala beteta eta saltokiaren zigiluarekin– eta erosketaren ordainagiria bermealdi osoan.

2.-Konponketa-zerbitzuak behar badituzu, berme-txartel hau erakutsi behar duzu.

3.-Gure produktuei edo konpainiari buruzko informazioa behar baduzu edo zalantzaren bat argitu edo kontsultaren bat egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan gure web-orrien bidez edo bezeroarentzako arreta-zerbitzuko zenbakien bidez.

4.-Irakurri arreta handiz berme-txartel honen edukia.

## MERKATARITZA-BERMEAREN ZIURTAGIRIA *(Telefonia)*

### BERMEAREN BALIO-BALDINTZAK

1. LG ELECTRONICS ESPAÑA, S.Ak inportatutako produktu ofizialetarako soilik da berme hau. Bermeaz baliatzeko, baldintza hauek bete behar dira:
   1.1. Saldu aurretiko tartean (saltokia), gailuaren modeloa eta dagokion IMEI zenbakia ipini behar da bermean.
   1.2 Merkataritza-bermearen (erabiltzailea) epean, NAHITAEZKOA da merkataritza-berme hau behar bezala beteta eta dendan zigilatuta ekartzea, bai eta tiket edo faktura originala ere, gailuaren modeloa identifikatzeko IMEI mekanizatuarekin.
2. LG ELECTRONICS ESPAÑA, SAk zure laguntza-sare teknikoan dituen zerbitzu tekniko baimenduak erabiliz gero soilik balia zaitezke bermeaz.
3. Gailua eskuliburuan zehazten diren jarraibideen arabera erabili behar da.

### BERMEAREN ESTALDURA

- Bermea LG markako telefono mugikorren modeloei aplikatzen zaie. • Hau da bermealdia:
  - Gailu mugikorra (terminala) 24 hilabete
  - Bateria eta beste kontsumigarri batzuk; 6 hilabete
  - Osagarriak: 24 hilabete
  - Baliabideak edo software-euskarria (CD-romak, memoria-txartelak, etab.): 90 egun
- Erosten den egunetik aurrera ezartzen da bermea (erosketa-fakturaren data).

BERMEAREN SALBUESPENAK
- Aurreko puntuko baldintzak ez betetzea.
- Berme-ziurtagiri honetan zehaztu edo sartu ez diren gailuaren barneko zein kanpoko osagai edo osagarri guztiak.
- Martxan jartzea eta funtzionamendu-erakustaldiak erabiltzaileentzat, sistemen konfigurazioa.
- Erabileragatiko ohiko narriadura (bateriena, kameren lenteena, pantailena, entzungailuena edo kanpoko esku librekoena barne).
- Matxura suteen, uholdeen, gehiegizko hezetasunaren, eragile meteorologikoen, kolpeen edo zanpatzeen ondorioz gertatzen bada, edo tentsio edo energia desegokia aplikatzen bazaio.
- Gaizki erabiltzeagatiko kalteak, garraioan izandako kalteak barne –garraio-konpainiaren langileei erreklamatu behar zaie; beraz, emate-agiriak berretsi baino lehen paketeak ikuskatzea komeni da–.
- Haustura fisikoen ondorioz gertatutako matxurak –karkasak, plastikoak, pinturak, esmalteak, kristalak, edergarriak eta antzekoak–.
- Gailuekin batera datozen funtzionamendu- eta erabilpen-jarraibideei kasurik ez egiteagatik gaizki erabilitako produktuak.
- Gailuan osagarri desegokiak erabiltzeagatik.
- IMEI zenbakirik eta serie-zenbakirik ez duten gailuak, aldatuta edo ezabatuta dituztenak, edo berme-ziurtagiriko edo erosketa-fakturako zenbakiarekin bat ez datozenak.
- Gailua (softwarea nahiz hardwarea) LG ELECTRONICS ESPAÑA, S.A.k baimendu gabeko langileek konpontzen edo manipulatzen badute.
- Gailu bakoitzari dagozkion mantentze-lanak, maiztasuna edozein delarik ere.
- Berme-ziurtagiri honetan agertzen edo zehazten ez den gailuaren barneko edo kanpoko osagarriren batek sortzen badu matxura, edo sarea aktibatzeko IMEI harpidedun-zenbakiari dagozkion arazoak badira.

### OHAR GARRANTZITSUA

- Merkataritza-berme honek ez die eragiten 2007ko azaroaren 16ko 1/2007 LEDaren arabera (2007ko azaroaren 30eko BOE, 287. zenb.) erabiltzaileak dituen eskubideei, berme honekiko independenteak eta bateragarriak direlako, nahiz eta saltzailearen adostasunik ez izan.
- 1/2007 LEDaren V. atalean aurreikusiaren arabera, erabiltzaileak eskubidea dauka legeak zehaztutako kasuetan saltzaileari eta/edo ekoizleari produktua konpontzeko eta ordezteko eskatzeko, bai eta, hala badagokio, prezioa merkatzeko edo kontratua bertan behera uzteko ere, neurriz kanpokoa ez bada behintzat.
- Dokumentu honetako eskubideak eta estaldurak izango ditu merkataritza-bermearen titularrak, estatu osorako.
- Dokumentu honetako eskubideak eta estaldura erreklamatzeko, bezeroarentzako arretako gure zenbakia erabil dezake bezeroak; bestela, idatziz jo dezake bulego nagusietara edo zerbitzu teknikoen zentrora edo ohiko jurisdikzio-bidera jo dezake.
- Konponketak iraun bitartean, ez da kalte-ordainik ordainduko gailua zerbitzutik kanpo egongo den denborarengatik.
- LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.k ez ditu bere gain hartzen gailu batek kanpo-elementuetan eragin ditzakeen kalteak.

### DATU PERTSONALEN BABESA

- 15/1999 Lege Organikoari jarraituz, jakinarazten dizugu merkataritza-bermeko zerbitzua emateko nahitaezkoak diren datu pertsonalak LG ELECTRONICS ESPAÑA, SAren ardurapeko RGPDko fitxategi batean sartuko direla, zuri zerbitzua emateko eta produktuei, zerbitzuei eta halakoei buruzko informazioa izateko. Datu horietara sartzeko, aldatzeko eta ezeztatzeko eskubideak erabil ditzakezu. Horretarako, sinatutako idatzi bat eta NANaren fotokopia bidali behar dituzu helbide honetara: Europa Empresarial, Edif. Madrid, Ctra. N-VI, Km. 24, Las Rozas (28230 Madrid).

## LG-REN HARREMANETARAKO DIREKTORIOA

### 902.500.234

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren telefono-zenbakia da hori. Deitu telefono horretara kontsultak eta erreklamazioak egiteko edo laguntza teknikoa eskatzeko.

### http://es.lgservice.com

Web-orri horren bidez, eskuliburuak eta SWren eguneratzeak deskarga ditzakezu, eta kontsulta elektronikoak egin ditzakezu posta elektronikoz.

### www.lge.es

Gure web-orri korporatiboa da hori. Gure konpainiari buruzko informazioa aurkituko duzu hor.

### LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.-REN BULEGO NAGUSIAK

Complejo Europa Empresarial
Edifcio Madrid
Ctra. Nacional VI, Km. 24
(28230) Las Rozas- MADRID
Tel: (+34) 91211.22.22
Fax:(+34) 91211.22.46

### LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.-REN ZERBITZU TEKNIKOEN ZENTRALA

Pol. In. El Oliveral Sector 13
Parcela 27 A
(46190) Ribarroja del Turia - VALENCIA
tel.: (+ 34) 902 500. 234
Faxa: (+34) 96 305.05.01

# ERABILTZAILEAREN ETA PRODUKTUAREN

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

POSTA-KODEA:

HERRIA:

PROBINTZIA:

TELEFONOA:

EROSKETA-DATA:

MODELOA:

IMEI ZBKIA.:

SALTOKIAREN ZIGILUA:

**ESTABLEZIMENDUAK EDO DENDAK DATU GUZTIAK BETE BEHAR DITU SALEROSKETAREN UNEAN**